



# Herri literatura



Igone Etxebarria  
Jabier Kalzakorta



# Herri literatura

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jauriaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

|                    |   |
|--------------------|---|
| Argitaraldia       | 1.a, 2009ko abenduan  |
| Ale kopurua        | 1.500 ale   |
| ©                  | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Kultura Saila   |
| Diseinua eta azala | Antton Olariaga   |
| Maketazioa         | Antton olariaga   |
| Argitaratzailea    | Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Internet           | <a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>  |
| Inprimaketa        | _____   |
| ISBN               | 978-84-457-3033-1   |
| Lege gordailua     | _____   |

Literaturaren izaera bizi eta dinamikoa adierazpide aberats askoren iturburua izan ohi da. Beti izan du gizakiak zer kontatu, eta berbak istorioak sortzeko aukera eskaintzen ziola ohartu zenetik edozelako euskarriak erabili ditu xede horrekin. Idatzizkoak kasu: hasi antzinako inskripzioak ziren haiekin, jarraitu eskuizkribu eta liburuekin eta heldu egungo e-booketara. Baina bakarrak ote?

Bada oroimena bide egin duen literatura ere: belaunik belaun ahoz aho transmititutakoa. Inoiz ere testuetan hartu du babesa, eta sarri beroriek ikasita jaso ditugu galdutzat jotako altxor asko eta asko. Baina asmoa ez zuen idatzien bidez janztea, akaso idazte ekintzaren aurretikoa zelako edo sortu zutenek kode hori eskura ez zutelako, edo izanda ere, behar ez zutelako. Herriaren oroimenak gorde ez dituenean, inoiz sortua izan bazen ere, galdu egin dira.

Euskal literatura, duela gutxira arte, testu idatzietan urria zen eta hizkuntzaren berreskuratze prozesuarekin batera gauzatu da bere hazkunde kualitatibo eta kuantitatiboa. Herri literatura, berriz, ondoko erdarenena bezain aberats eta landua da adituen ustean.

Labayru Ikastegiko Igone Etxebarriak eta Jabi Kaltzakortak paratu duten Herri literatura liburuak euskal literaturaren eremu hori azaltzea eta argitzea du xede, eta, bide batez, behar duen tamainako inportantzia aitortzea. Orrialdeotan irakurleak gaiak biltzen dituen alderdien berri jasoko du, adibidez ederto osatuak: errefraua eta esaerak, igarkizunak eta aho korapiloak, koplak, baladak, bertsolaritza...

Liburua aberaste aldera kanta, bertso eta ipuinez osaturiko grabazio bilduma ederrarekin egingo du topo irakurle-entzuleak. Asmoa argia da: berez ahozkotasanaren ezaugarri duen literatura mota hau bere benetako testu-inguruan gozatzea. On egin!

Kultura Saila  
*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza*

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| 1. Herri literaturaz sarrera                           | 11 |
| 2. Ahozko literatura: tradiziozkoa eta ez tradiziozkoa | 13 |
| 3. Euskal herri-literatura                             | 18 |
| 4. Errefrauak eta esaerak                              | 25 |
| 5. Igarkizunak eta aho-korapiloak                      | 27 |
| 6. Poesia ludiko-korala                                | 29 |
| 7. Kopla zaharrak                                      | 32 |
| 8. Baladak eta kantu narratiboak                       | 36 |
| 9. Bertsolaritza                                       | 5  |
| 10. Ipuinak  | 63 |
| 11. Herri-antzerkia, pastoralak                        | 68 |
| <br>   |    |
| <i>Bibliografia</i>                                    | 73 |
| <i>Ilustrazioen iturriak</i>                           | 75 |



## 1. HERRI LITERATURAZ SARRERA

Literaturaz hitz egiten denean, gainerako zehaztasunik ematen ez bada, literatura idatzia datorkigu lehenengo-lehenengo burura guztioi. Herri bateko literatura irakasten denean ere, idazle handien lanak eta ibilbide historikoa aintzat hartzen da gehienbat. Literatura ikasketetan beste horrenbeste: teoria, korronte, pentsalari eta kritikoen aztergai funtsezkoa literatura idatzia izan ohi da batez ere.

Literatura idatziari buruzko teorikoez ez diote leku handirik eskaini ahozko literaturaren azterketari; ahozko literatura herri lau eta xehearen literatura izan ohi delako, eta idatzizkoa, jende eskolatu eta jakitunena.

Baina berez elkarren osagarri dira literatura idatzia eta ahozkoa, biek osatzen dute gorputz bera. Literatura unibertsaleko lan askotan idazleek, baita handienek ere, herri xeheak kontatu ohi zituen ipuin, kanta eta esaera zaharrak sartzen dituzte.

Herri literaturari izena eman edo berau izendatzeko orduan, nahastea dago erabiltzen diren izenen artean: batean folklorea, bestean ahozko literatura, bestean tradiziozko literatura... eta, jakina, guk darabilgun herri literatura.

*Folklore* berbak esangura bereziak hartu ditu, baina joera nagusia da zentzurik zabalenean hartzea. Folklorea berez komunikazio prozesu bat da egoera baten barruan, eta tradiziozkoa edo ez tradiziozkoa izan daiteke.

*Herrikoia* edo *popularra* ere ez da kontzeptu argia. Berez ez dago argi kontzeptu horren azpian zer adierazten den: kultura hedatzeko transmisio modu bat, etnia

baten adierazgarri diren ezaugarri zahar aspaldikoen irautea, tradizioak gorde dituenak zelakoak diren, bizitza ikusteko eta interpretatzeko modu berezi bat... edo denetarik apur bat.

*Ahozkoa*, berriz, ahoz zabaltzen denari esaten zaio. Baina honen mugak ere ez dira zehatzak, ahoz zabaltzen diren testu-atal batzuk artean idatziz sortu izan dira eta.

Edozein modutan dela, ezin ditugu *herrikoia* eta *ahozkoa* berdintzat jo. Bata besteagandik bereizteko irizpide diferentek daude ikertzaileen artean: batzuek difusio bidea dela-eta bereizten dituzte, beste batzuek diote folklorea ahozko tradizioa dela, eta *herrikoia* dena zabalkunde mekanikoa dela. Adibide asko dira, gaur egun folklore-testutzat ditugunak, hasieran literarioak zirenak; eta alderantziz ere berdin: idazle asko dira, euren ipuin eta poemak ontzeko herri literaturatik edan dutenak.



1

*Azkueren ekarpena, kopuruz eta maimiz,  
neurrigabea da, are gehiago bere garaian ze  
bitarteko zeuden kontuan hartzen badugu.*



Hamazortzigarren mende amaieran Alemanian sortu eta hemeretzigarrenean barrena garatu zen Erromantizismo mugimenduak ahozko literaturari balio berezia aitortu zion, herrien berezko jeinu eta izatearen adierazgarri legez. Orduan hasi ziren folklorea eta ahozko literatura balioa hartzen. Herriak kantatzen zituen herri-kantuak, kontatzen zituen herri-ipoikin eta esaundak, ahoan zerabiltzan atsotitz eta esaerak ziren besteak beste, haien ustez, herriaren espiritu edo arimaren ispilu, alemanez *Völkgeist* zeritzana. Herrien lehena, iragana ezagutzeko bidea ere bazen herri-literatura.

Herri-literatura, belaunik belauin iraun eta biziaria zenez gero, ederra zen berez, baina batez ere herriaren izpirituaren gordailua: herriaren arima horrexen bila zebiltzalako saiatu ziren ipuinak, kantuak, elezaharrak eta herri-jakintzako adierazpen mota guztiak batzen eta gordetzen. Herri-literatura arloan, mugimendu honen aitzindari eta buruak Grimm anaiak izan ziren, Jacob eta Wilhelm. Aleman-hizkuntzako lurralde guztietan barrena bildu zituzten ipuinak (*Marchen*) eredu literariora bihurturik tomo bitan argitaratu zituzten lehenik, 1812 eta 1815ean –255 ipuin guztira–, ondoko urteetan argitaraldi osotuagoekin berritzen joan ziren (1819, 1837, 1840, 1843, 1850), 200 ipuineko bilduma osatu arte, umeentzako beste hamar elezaharrekin ere hornitu zutena, 210 ipuin guztira. Grimm anaien herri-ipoikinok, aleman-hizkuntzaren eremuan ez eze, Europa osoan barrena ere uste baino oihartzun zabalagoa jadetzi zuten etengabeko itzulpenen bidez.

Hemeretzigarren mende erditsuan, 1846an, Ambrosio Merton, *William J. Toms* izengoitiaz ezagutua denak sortu zuen *folklore* hitza, Londreseko *Ateneum* aldizkarian atera zuen idazlanean. Alemanen *Völkgeist*

eta *folk-lore* hitz eihoberriak hitz-erro bera dute: herria. Hitz berria sortu ez-ezik, sentiberatasun berri bat ere sortu eta hedatu zen Europa osoko literaturazaleen artean. Literaturaren ederra, idatziz ezarritako sorkariei ez eze, beste era bateko sorkariei ere ondo zetorkien, zorionez. Belaunik belauin, mendeetan zehar, transmititu izan ziren herri kanta eta kontuen altxorra ere literatura ederraren barruan sartzen zen. Aldi horretan goratu eta estimuz onetsi zituzten ahoz aho mendeetan zehar iraunarazi ziren herri jakintza eta herri literatura. Euskal Herrian ere oihartzun handia izan zuen Ingalaterrako mugimenduak. Unamunok, Vicente Aranak eta Camilo Villabasok 1884an *Sociedad El Folk-lore Vasco-Navarro* sortu zuten, euskaraz *Erriko Yakintza* izena hartu zuena. Azkue handiak ere hitz berau erabiliko du bere azken lan erraldoia argitaratu orduan: *Euskalherriaren Yakintza*.

Ahozko literaturaren gaineko lehen kontzeptu teorikoak XX. mendearen hogeita hamargarren urte inguruan sortu ziren. Abiapuntuen artean hiru garrantzizko aipa daitezke:

- Marcel Jousse-ren bultzada Salmo eta Ebanjelioetako generoen azterketan.
- Milman Parry: formula odiseikoen eta Homeroren epitetoaren gaineko azterketa.
- Albert B. Lord: Jugoslaviako bat-bateko poesiagileen tekniken azterketa.

Homeroren poemen gaineko auzia lehendik zetorren: XVII. mendean hasi zen ezbaia, ea sormen lanak zirenentz ala lehenagotik zetozen ahozko poemen bateratzea ez ote ziren. Arazo hau serio azaldu zuen lehenengoa Milman Parry izan zen. Haren tesia hau zen: poesia homerikoaren ezaugarri bereizgarria

konposiziorako ahozko teknikak agintzen zuten ekonomia-legea zela.



*Resurrección Mª Azkue.*

Haren ustez, poeta ahozkoak, berba solteak barik «izen + epiteto» multzo etenezinak zeuzkan. Berba multzo horiei *formula* izena eman zien: formulak, ideia jakin bat adierazteko normalean baldintza metriko berdintsuetan erabiltzen diren hitz-multzoak dira, haren ustez. *Iliada* eta *Odissea* obretan berba gutxi daude formula barruan sartu gabe.

Albert B. Lord-ek ahozko poesia tipo berezi bat aztertu zuen; Europan eredu hau Jugoslavian bakarrik aurkitzen dela esan daiteke. Ahozko poesia ez tradizionala da,

bat-bateko poetek edo repentizadoreek egiten dutena; narratiboa izan ohi da. Mendeetan erabili izan dute kantari eskolatubakoek, belaunik belauin.

Eredua berez hauxe da: historiak osotzea bertso eta hemistikioak elkarren atzean lotuta; bertso eta hemistikioak hainbat *gai* kantatzeko *formulak* dira. Formula sintagma lexikalizatua da, gramatika-funtzio espezifiko eta eduki semantiko finkoa duena. Ahozkoak beti esanahi bakarra du eta ez da konnotatiboa. Teorian, tradizio bakoitzeko *formula* hiztegiak egitea posible litzateke, eta sarrera bakoitzari esanahi eta gramatika-funtzio bana egozte.

Formularen oinarrian motibo bat dago, baina normalean galdu edo ahaztu dena. Bai kontalariek, bai entzuleek ez daukate arazo etimologikorik, eta adierazitako formulak bere osoan ulertzen dituzte, ez berbarik berba.

Ahozko literaturak bere estilo berezia sortu du berezkoak dituen ezaugarriak kontuan hartuta. Ahozkoan hitzek edo *formulek* funtzio asko baina jakinak betetzen dituzte: poza, tristura, agindua, eskaria... adierazteko *gai* dira. Formulok, bestalde, buruan izan behar dira, hurrengoan ere kontatu edo kantatu ahal izateko. Memoriak, oroimenak, sekulako garrantzia du ahozko medioetan.


Oinarri biok kontuan hartuta, estilo berezi bat sortuko da ahozko literaturaren inguruan. Hona ezaugarri nagusiak:

- Joskera aldetik, formula koordinatuak nahiago ditu subordinatuak baino; egiturak bata bestearen ondoan ipinita.
- Aztertu baino gehiago pilatu egiten du. Eta normalean formulak, berba multzoak edo sintagmak pilatzen

ditu, eta ez berba hutsak: dama gazte xarmanta, ...  
(paralelismoak, kontrajarpenak, epitetoak).

- Estilo errepikatzailea, jario handikoa. Ahozkoa denez gero, mezua argi gera dadin.
- Estilo kontserbadorea edo tradiziozalea ideologia aldetik. Jakintza galtzen doan neurrian, behin eta berriz errepikatu behar da iraupena ziurtatzeko. Horregatik jo ohi da zaharregana, jakintza hori hobeto ezagutzen dutelako eta transmisore hobek direlakoan.
- Jarduera zehatzei lotutako estiloa da, esperientziatik hurbil dago.
- Estilo agonistikoa, indarkeriaz betea, dramatizatua. Gora handia dute heroien arteko desafioak eta bortxakeria eszenak. Horregatik, epika ez eze polemika ere garatu da (bertsolariak, pastorala...)
- Egoerarekin bat egiten duen estiloa. Esatariak istorioarekin bat egiten du, eta entzuleak ere erantzun egiten du bere sentimenduen bitartez (negar, barre, hasperen, harridura, komentarioak....).
- Historioak aldatu egiten dira, baina normalean oreka, egoerari eusteko joera dago ia ezer aldatu barik.

Baina ahozko poesiaren ezaugarri nagusia eta ondoen definitzen duena errepikatzea da: bai formulak, bai edozein eratako errepikapen edo paralelismo. Eta horrek maila guztietan du eragina: batetik soinu oihartzunak sortzen ditu, errepikapenak berak paralelismoa sortzen du, edo testuaren leku jakinetan dago edo testu osoa hartzen du, beti berdinean errepikatzen da edo zatiren bat aldatzen du. Modu askotan izan daiteke errepikapena, baina leloa edo estribilloa nabarmenduko genuke.



*Manuel Lekuonak, biltzeaz gainera, herri literatura aztertzeko oinarriak jarri zituen.*

## 2. AHOZKO LITERATURA: TRADIZIOZKOA ETA EZ TRADIZIOZKOA

Ahozko literaturak ezinbestekoa du batek esaten, erreztatzen edo kantatzen duena beste batek edo batzuek entzuna izatea, eta baldintza horrek egoera jakin bat eskatzen du. Esale-entzule harreman hori dela-eta, azaldu beharra dago *performance* kontzeptua zer den.

*Performance* delakoa poema erreztatzea, ipuina kontatzea bera da. Performancea ahozko literaturaren gorengo unea da, eta berorrek eragin eta finkatzen ditu gainerako elementu formalak. Ekintza bikoitza da:

transmisio edo igorpena eta hartzea, jasoera. Eta ekintza den aldetik aktore batzuk daude: igorlea eta hartzailea/ak, eta bitarteko batzuk (ahotsa, keinuak, testuingurua). Testuingurua lekuak eta denborak osatzen dute, poema transmititu eta hartu egiten da leku eta une jakin batean. Ekintza konplexua da, ez dago performancerik interkomunikaziorik ez badago; une horretan igorleak eta hartzaileak bat egiten dute.

#### DANTZA-KOPLAK

1

Asiko banaiz asiko  
gazteak dibertitzera,  
ni onela ikusita  
konsolatzen ez bazera.

2

Ai au pandero berria  
Iruñetik ekarria,  
egalak ditu urdiñak  
erdian urregorria.

3

Nere eskuko panderoa  
piña da ardi-narrua,  
dama bati kosta zayo  
memorial baten dirua.

4

Txoritxoak kayolara,  
estudianteak eskolara;  
erri ontako motillak  
gauean tabernara.

5

Itxasoan solai berde  
arrai preskoak an daude;  
aurten praile juateko (e)re  
dama zu zaitut adiskide.

6

Itxasoan laño dago  
Orioko barraraño;  
nik zu zaitut maiteago  
amak bere semea baño.

7

Itxasoan urek andi,  
ez da ondarrrik agiri;  
pasauko nitzake ni andi  
nere maitea ikusteagati.

8

Begira nago begira,  
kamio bide berrira,  
noiz etorriko ote da  
nere maitea errira.

9

Katarroa dauket eta  
ezin det ongi kantatu,  
gauerdiko serenoak  
ez nauela ondo artu.

10

Zerua urdiña da ta  
esperantza berdea,  
urreak signifikatzen do  
biotz kontentuz betea.

11

Tristerik nago tristerik,  
ez dauket adiskiderik,  
adiskide zeinbat baño  
obea da be(r)a bakarrik.

12

Larrosa eder baratzean,  
loratzen da mayetzean;  
amioririk ez duanak  
ez do miñik biotzean.

13

Ai, motil txamarra gorri,  
zenbatean dek pandero ori?  
–Amar erreal da erdi.  
–Gora dek pandero ori.

14

Or goyen dago iturri,  
egarri danak ekarri;  
bi alaba dauzkan amak  
bat emango al dit neri!

15

Ez det nik nai soldadue,  
ain gutxi marineroa,  
kalean paseatzeko  
obea da kaballeroa.

16

Marinelaren andrea  
kotadun miserablea,  
gauean senarrarekin  
goizean pesadunbrea.

17

Ama batek ezkontzeko  
nere gustoko batekin,  
dotea emango di(d)ala  
olla lokea bost txitakin.

18

Adios ta orain banoa  
nai dezunean etorri,  
amoriozko begi biak  
erakustera elkarri.

19

Esango ba(d)izut esango  
ez naiz ixilik egongo,  
plaza zarreko damea  
ez dala monja juango.

20

Kaleran nago kaleran,  
arri otzaren gañean,  
atea nork irikiko  
etxera natorrenean.

21

Nere nobiaren ama  
asto baten jabea dana,  
berak ekarriko dio  
etxean bear dana.

22

Auxe da despedidea,  
despedidearen tristea,  
agur, aita eta ama,  
adios, arreba maitea.

23

Itxasoa esnezkoa,  
auntzie kristalezkoa,  
urrea enbargatzeko  
Birjiña Pilarekoa.

24

Klabeliña dago leyoan  
ipintzen zaitut kontuan;  
amore batek uts emon arren  
beste asko di(r)e munduan.

25

Zizarea solarea,  
jauregiaren alabea,  
amak erakutsiko dizu  
Donostirako bidea.

26

Nere maitea zer dezu?  
Endredo triste zaude zu,  
munduko esanakatik  
ez zaitzela estutu.

27

Gazte piña ziñanean,  
gazte piña ziñanean,  
sekulan ez zaitzun palta  
galayik aldamenean.

28

Tristuran nago tristuran  
ez nago nere gustora,  
nere gustora egoteko  
juan bearko det nik zerura.

29

Errotara zatozenez  
esayozu errotariari,  
lakarik ez kentzeko  
zure zaku txikitoari.

30

Kitarra zar-zar batekin  
nai dezu ezkondu nerekin,  
nai ez badezu nerekin  
zuatza Jaungoikoarekin!

Ataun, Gipuzkoa

JABIER KALZAKORTA

*Dantza-kopla zaharrak, 2007*

Ahozko literaturaren definizio erabateko bat ematekotan, Mircea Eliade-k formulatua erabiliko dugu: «Noizbait norbaiten ahotik irten dena eta oroitzapen kolektiboak gorde izan duena». Esaldi horrek hainbat bereizgarri ditu bere barruan. Batetik, egilea *norbait* edo *nor edo nor* denez, ez daukagu egile ezagunik, ez dugu ezagutzeko moduko pertsonarik produkzio horren atzean. Norbait horrek sortua eta jalgia, entzuleek entzun eta *gogoan* gorde izan dute; memoria, oroimena da sorkuntza horren gordelekua. Eta transmisioa ahotik belarrira egin da, gero hurrengo beste batzuek errepikatu dutenean egingo den moduan, belaunik belaun irauaraziz jatorriko *norbait* haren sorkaria. Horri esaten zaio tradizioz transmititza, eta hala transmititzen denari esaten zaio *tradizioko literatura* edo *literatura tradizionala*.

Literatura tradizionalan testuak belaunaldirik belaunaldira igarotzen dira, irauarazteko asmoaz. Ez da behar gizarteko talde jakin bat transmisio horretarako, gizarteko edozeinek egin dezake hori, baina benetan gertatzen dena da gutxi batzuk direla ahozko literatura hori zabaltzen dutenak, eta hauek ezagunak izan ohi dira gainera euron inguruan.

Literatura ez tradizionalan, ostera, testuak performancea amaitzeaz batera aldendu, galdu egiten dira, ez dira entzuleen gomutan itsasten. Horretarako repentizadoreak behar dira, konposizio-teknika jakin batzuk ondo menderatzen eta erabiltzen dituztenak, gainera. Eta repentizadoreok darabiltzaten elementu, formula, hizkuntza eta konposizio teknika finkatuok bai badira tradizionalak.

Ahozko literaturaren era biok itxura baten ondo bereizirik daudela badirudi ere, bien arteko muga ez da batere zehatza; esan daiteke transmisio mistoa edo bitarikoa ere badagoela. Hala esaterako, Juan Mari Lekuonak bere *Ahozko Euskal Literatura*-n, bertsolaritza aztertzen duenean bat-bateko beste eredu batzuekin konparatzen ari dela, adibide esanguratsuak jartzen ditu behin performance batean sortutako bertsoak eta une horretan bertan entzuleek buruan oso-osorik gorde, gero errepikatu eta tradizionalizatzeko bidea egin dutenak. Hau da, jatorria egile baten une bateko inprobisazioa izan arren, hainbeste errepikatu eta denbora-espazioan aurrera eginda, jatorria eta sortu zuen bertsolariaren egiletzaren kontzeptua lausotu egin direla guztiz galtzeraino.

Ez hori bakarrik; poesia ez tradizionalaren egileek tradizioko formula, erregistro eta sinboloak erabiltzen dituzten ginoan, era bien arteko mugak ere lausotuz

joaten dira. Hala bada, mota bion arteko aldeak eta mugak ez dira beti ikusten errazak.

Euskal literaturaren barruan ez tradizionaltzat jotzen dira bertsolaritza eta pastorala. Genero tradizionalen artean, berriz, honakoak aipatuko ditugu: koplak zaharrak, baladak, kantu lirikoak, ipuinak, errefrauek (paremiologia), inauterietako antzezpenak eta Gabonetakoak.

### 3. EUSKAL HERRI-LITERATURA

Euskal hizkuntza berandu batera arte ez da idatziz erabili, eta idatzia izan denean ere, gai esparru guztiz mugatuan; ez behintzat ahoz erabilia zen esparru guztietan, ezta hurrik eman ere. Horrexek eragozten digu euskaraz zer erabiltzen zen jakitea, eta erabiltzen zen hori ezagutzea ere. Ez ezagutze horrek, gainera, ondorio desberdinetara bideratu ditu ikertzaile eta pentsalariak. Hala, batzuentzat euskara ez da kultura hizkuntza, ez du kultura edukiak adierazteko balio, hizkuntza basa bat da, eta ondorioz, ez dago literatura baliokorik hizkuntza horretan.

Beste batzuentzat, aldiz, dagoen horrek bere balioa du, bai hizkuntzalaritza aldetik, bai literaturarenetik. Eta ahozko literaturaren arloa etorrita, euskararen eremua bezalako biztanle kopuru mugatua eta lurralde txikian bizi den herri batena izateko, ezagutzen dugun herri-literatura corpusa ikertu eta baloratuz gero, albo herrietakoari zor handirik ez diela epai daiteke. Gure

ikertzaileek ere halatsu diote, albo herrietakoa bezain interesgarri eta baliotsua dela.

Hara bi iritzi kualifikatu:

«A diferencia de la literatura escrita, la oral es abundante y variada. Esto puede quedar bien sentado, sin entrar en comparaciones con las de otros pueblos».

(Koldo Mitxelena, *Historia de la literatura vasca*  
Madrid: Minotauro, 1960, 19 or.)

«Ahora bien, que los estamentos inferiores de la sociedad vasca fueran mantenidos en el analfabetismo no quiere decir que carecieran de una literatura propia. Por el contrario, poseían una tradición oral, si no tan rica como la de sus vecinos de lengua románica, no por ello menos interesante».

(Jon Juaristi, *Literatura vasca*  
Madrid: Taurus, 1987, 15 or.)

Euskal ahozko literaturaren lekukotasun idatzirik zaharrenak XVI eta XVII. mendeetakoak dira; ezagutzen direnak behinik behin. Mende horietan idatziz jaso zituztenean kronikagileek, tradizio bihurturik zeuden. Idatziz finkatu aurretik ahoz aho zebiltzan, ahoz transmititzen ziren. Eurotan kontatzen diren gertaeren arabera, mende bat edo bi lehenagokoak ere izan daitezke.

Kanta eta kronika horiek nekez heldu dira osorik, zatika edo erdizka baino, gehienetan Esteban de Garibay historialari arrasatearraren bitartez. Koldo Mitxelenak

*Textos Arcaicos Vascos* (Madrid, 1964) liburuan baturik eskaini zituen orduan ezagunak zituen txatalak, ohar-iritzi jakingarriz jantzita.

Garibaik jasorik dakartzan kanta zaharrok bi mende lehenagoko jazoerak kontatzen dituzte batzuetan. Hala XIV mende hasierako gertaerak, 1321ekoak, kontatzen ditu Garibayk *Compendio Historial de las Crónicas* (1571) lanean, Beotibarko guduaz:

«Mila urte igarota  
Ura bere bidean,  
Gipuzkoarrok sartu dira  
Gazteluko etxean,  
Nafarrokin batu dira  
Beotibarren pelean».

Bertsolariek gaur egun egiten duten antzera, bat-bateko lehen saioaren testigantza andrazko baten ahotik jasoa da. Emilia Lasturkoren heriotzean, haren ahizpak kantatu zuen «eresia» bat-batean sortua zatekeen, nahiz era horretako kantuetarako zenbait egitura finko ezagun aplikatu. Eta hildako andre gaztearen ahizpak eresia kantatu ondoren, Sancha Ortiz andreak erantzun eizion bat-bateko beste kantu batez. Garibairi esker dugu koplak sorta horren berri, eta *Memorias* historia-lanean berenberegi dio XVI. mendean ohiko zela hildakoari eresiak kantatzea.

Milia Lasturkoren ahizpak, Debatik Mondragoera etorririk, haren hileta egunean eresiak kantatu eizituen, ahizparen ondran eta haren senar Pero Garziaren kontra, honek laguntzat lehendik hartua baitzeukan Marina Arrazolako andrea:



Zer ete da andra erdiaen zauria?  
Sagar errea eta ardao gorria.  
Alabaia kontrario da Milia;  
Azpian lur otza, gaiñean arria.

Lasturrera bear dozu, Milia.  
Aita jaunak eresten dau elia,  
Ama andreak apainketan obia.  
Ara bear dozu, Milia.

Jausi da zerurean arria,  
Aurkitu dau Lasturren torre barria,  
Edegi dio almeneari erdia.  
Lasturrera bear dozu, Milia.

Arren, ene andra Milia Lasturko,  
Peru Garziak egin deusku laburto.  
Egin dau andra Marina Arrazolako.  
Ezkon bekio; bere idea dauko.

Erantzuna Peru Garzia horren arreba Sancha Ortiz  
andreak eman ei zion:

Ez dauko Peru Garziak bearrik  
Ain gatx andia apukadua gatik;  
Zeruetako mandatua izanik,  
Andrariok ala kunpli jasorik.

Gizon txipi sotil baten andra zan,  
Atearte zabalean oi zan,  
Giltza porra andiaen jabe zan,  
Onra andi asko kunplidu jakan.

Ondoko beste koplok ere Milia Lasturkoren ahizpak  
kantatuak ei dira, Garibaik dioskunez:

Arren ene andra Milia Lasturko,  
Mandatariak egin deust gaxtoto.

Zerurean jausi da abea,  
Jo dau Lasturko torre gorea,  
Eroan ditu ango jauna eta andrea,  
Bata leen, gero bestea.  
Bidaldu dogu zeruetara karteia:  
Arren diguela gure andrea.

Mondragoeri artu deusat gorroto,  
Giputz andraok artu ditu gaxtoto:  
Iturriotz kalean andra Maria Baldako,  
Artekalean andra Oxanda Gabiolako,  
Errebalean andra Milia Lasturko.

Hamabosgarren mendekoak dira beste kanta batzuk  
ere. Mitxelenak bildu zituen TAV liburuan, kronikagile  
zaharrek jasoriko gehienak. Goikoaz gainera, Pedro  
Abendañokoren erostak (1443), Mondragoeri su  
ematea (1448), Olasoren kanta eta Martin Bañez  
Artazubiaren heriotzako eresia, Isasti historialariak  
dakarren Sandailiaren kanta, Salinasko kondearena,  
Juan Lazkanokoren kanta, Nafarroako kondestablearen  
kanta, Diego Lopez Harokoarena, Perutxorena eta  
beste.

Oraintsuago ezagutu da Iburguen-Cachopin kronika  
luzean jaso den Errodrigo Zaratekorena. XV mendean  
Urkizuko leinuaren eta Zuiako Zaratearren arteko  
borrokez mintzo zaiguna:

Y con esto se fue a las torres de Mori[llas], de allí a [unas] dos leguas, corriendo, que heran de Hurtado Días de Mendoça de su bando, y tiene una *ereçia* que dize ansí:

Arma-eskuduak on dira dardoz,  
parerik eztabe kanporacoz,  
Zaratearrak galdu ei dabe  
Markuia-Zuia zekulako.

Errodrigo Zarateko, zelan engana sindean  
jaun Juane Abendañokogaz gudua artzen zanean?  
Bi milla gizon oi dituz bere lelengo deiean,  
lau milla bere baleduke premia letorrenean.  
Kortazarretarrak delantere, Ibarguendarrak urrean,  
Gaztelan Sarmientuarrak asko, ez parerik arean,  
jaun Asenzio Gebarako ganean darda ordean,  
Billela ta Arteaga anaje onak urrean,  
zaldi zuriak on[ .t. .c. . . .d. ]rreanean,  
onak arin, gog[oa] sendo, arerioaen atzean.

Errodrigo Zarateko zaldi urdinaen ganean,  
bosteun kaxkabel urregorritzko zaldia idunerean.  
Karrera laster eroean Erbitegi ganean,  
arerioak ur, jarraika arrebearen semea,  
oña txipi, orpo laster, Abendanotxea.  
—Arren, etxosu orain osaba, bixeok justa gaitean.  
—Etxi egidak orai, illoba, gaur bixirik noean.  
Neure bizian enoake Urkizuren kontrean;  
omenaje egingo joat bizia dodan artean,  
bela bik sar naxaitek Billa Realgo torrean.



4



*Lekuonaren lanik garrantzitsuenak herri literaturan.*

XIX. mende hasieran Wilhem Humboldt dugu tradizioko euskal kanten biltzaile goiztiarra, bide batez antzean baino egin ez bazuen ere. Harena dugu, besteak beste, erromantze baten lekukotza idatzi zaharrena, Lapurdiko Itsasun Harranbillet zeritzan hango 81 urteko apaizari 1801ean ikasi ziona:

Andre Emili, andre gora / orai ez arto-jorra  
ogirik ora hain guti, / zoaz Mairu herrin gora.

Saldu nintzen dirutan / asko sari handitan,  
ehun pizu dirutan ta / berrehun dupa ezitan.

Aita nuen saltzaile, / ama diru hartzaile,  
anaiarik xipiena / Mairuetarik kentzaile.

XIX mendean aurreratu ahala bildu ziren XV-XVI. mendeetako eta geroagoko hainbat tradiziozko kanta. Zahar horietarikoak dira Bereterretxeren kantorea edo Urrutiarena, kasurako.

Izan ere, hemeretzigarren mendean egingo dira gure lehen bilketa ezagunenak. Lehen kanta biltzaileak zuberotarrak izan ziren. Augustin Xaho da lehenengo ezaguna. Francisque Michelek *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa litterature et sa musique* liburua 1857an agertu zuenean, hango kanta gehienak Arxu zuberotarrak emandakoak zituen, eta zuberotarra izan zen Jean Dominique Julien Sallaberry ere, 1870ean *Chants populaires du Pays Basque* argitaratu zuena.

Ipuin eta elezahar biltzen lehenengo jardun zutenak, ordea, kanpotarrak izan ziren. Jean François Cerquand Frantziako eskola inspektoreak *Bulletin de la Société des*

*Sciences, Lettres et Arts de Pau* aldizkarian, «Legendes et récits populaires du pays basque» titulupeko artikulu luzeetan, 1874-1885 bitartean, 117 kontakizun argitaratu zituen. Kontakizunok ipuin eta elezaharrak dira gehienbat, zehaztasun handiz hornituak. Cerquand-en garaituan Euskal Herrian bizi zen Wentworth Webster (1828-1907) pastore anglikanoak ere hainbat ipuin eta istorio bildu zituen Saran, Lapurdin. Istorio hauetariko batzuk, ingelesera itzulirik Londresen argitaratu zituen. Julien Vinsonok 1883an liburu polit bat argitaratu zuen frantsesez: *Le folk-lore du pays basque*. Antoine Abaddiaren eraginez ere bildu ziren herri-kontakizunak, oraintsura arte Parisko Biblioteka Nazionalean gorderik egon direnak.

Bertoko biltzaileak ere badira XIX. mendean zehar, batez ere herri-literatura genero batzuetan oso goiztiarrak. Mende hasieran bertan gailenduko zaigu Juan Antonio Mogel, batez ere errefracu biltzen, baina baita herri-ipuin eta herri-kanta bat edo beste ere. Gerotxoago azalduko zaigu Juan Ignacio Iztueta, folklore alderdiko zenbait alderdi jorratzen, batez ere herri dantzena.

XX. mendeaz azalduko dira Iparraldean, Jean Barbier lehenengo, eta Mayi Ariztia edo Piarres Lafitte geroago.

XX. mendera ezkerreko, biltzaile nekagaitzak, lan zabalaren egileak dauzkagu, gerora ondare erraldoia eskura utzi digutenak. Emankorrenetarikoa Resurrección M<sup>a</sup> Azkue (1864-1951) dugu. Haren *Cancionero Popular Vasco* eta *Euskalerraren Yakintza* ezinbestean erabili beharrekoak dira euskal herri-literatura ezagutu nahi duen edozeinentzat.

Erreferentziako biltzailea dugu Jose Migel Barandiaran (1889-1991) ere, bere oinatzak herri jakintzara zuzendu bazituen ere herri literaturara baino gehiago; arlo honetan ipuin eta elezaharretan da ekarkorrena bere bilketa. *Obras Completas* bilduman berrargitaratu ziren lehenago aldizkarietan barreiatuak zeuden lan asko, eta oraintsuago, berak zuzentzen zuen *Eusko-Folklore* aldizkariaren aldi biak tomo bitan, aurkibide erosoekin lagunduta.

Aita Donostiaren lana ere balio handikoa da, kantu arloan batez ere, bai musikaren bai letren alderditik. Jarraitzaile zindoak izango ditu bere kaputxino-ordenakoen artean, Jorge Riezu batez ere, hark atonduta argitaratu ziren *Obras Completas del Padre Donostia* 12 aletan 1960-1970 bitartean.

Manuel Lekuona (1894-1987), biltzailea ez ezik, ikertzaile handia ere dugu. *Literatura Oral Vasca* obra izan zen herri literaturaren esparruko ikerketa urratu zuena. Azterlan horretan daude ahozko literatura sailkatu eta sistematikoki aztertzeke lehenengo ahalegina eta pausoak. Kardaberaz Bazkunaren bitartez, zaletasuna zabaltzeaz gainera, laguntzaile sarea osotu eta herri kulturako txatal asko batu zituen. Gerora beste azterketa batzuen bidez zehazten eta fintzen joan da azterketa hori, baina hari zor zaio, neurri handi batean, gure artean ahozko literaturari duintasuna ematea eta ikertzaileen gaitzat hartzea.

Zutabe horien ondoren, eta Espainiako gerrate zibilaren ondoren batez ere, beste batzuk etorriko dira arlo honetara. Besteak beste, Aita Jorge Riezu, Jesus M. Leizaola, Angel Irigarai, eta horiekin lotuta gure arteraino heldu direnak: Antonio Zavala, Jose Maria Satrustegi, Juan Mari Lekuona, Euskal Herriko

Unibertsitateko Letra Fakultateko «Maria Goyri» Mintegia Gasteizen, Labayru Ikastegiko «Mikel Zarate» Literatur Mintegia Bilbon, Jon Juaristi eta beste.

Azken horien artean, Jose Maria Satrustegik (1930-2003) Nafarroako folklorea aztertu du gehien, bai etnografiaren ikuspegitik bai literaturarenetik. Juan Mari Lekuonak (1927-2005) *Ahozko Euskal Literatura* lanean euskal ahozko literaturaren azterketa zehatza egiten du, Manuel Lekuona osabaren lanaren ildotik.

Antonio Zavala (1928-2009) *Auspoa* bildumaren sortzaile eta zuzendariak ahozko literaturaren corpusik zabal-ugariena garatu du aiez ale. Luzaroan gehienbat bertsolarien emaitza sakabanatuak (bertso paper eta aldizkarietan) jasotzen egin du ahalegin, eta denboran aurrera egin ahala herri prosa garatzen ere indar



*Antonio Zavalak 1961etik aurrera zuzendutako «Auspoa Liburutegia» da herri literaturako corpusik handienetako bat euskaraz.*

5

handia egin du, bertsolari eta beste herri-jakintzaren lekuko trebeak idaztera bultzatuz. Zeregin horretan hirurehun liburutik gora atera ditu, eta berak bildu ez balitu, materialetariko asko betiko ahantzi edo galduak gertatuko ziren. Herri literaturako beste azpi genero batzuk ere landu ditu: errefracu eta esaera zaharrak, amodio eta gabon kantak, balada zaharrak... *Euskal erromantzeak / Romancero vasco* izenburupean, berarena dugu baladen, edo berak esaten duen moduan

erromantzeen, corpusik handiena. Azkenik, herri literaturaren azterketa eta teorizatzean ere jardun du, batez ere hitzaldien bidez. Horiek ezinbestekoak dira gaur gai honetan sakondu ahal izateko.

Jon Juaristi aditua da baladen generoan eta esaundetan. Lan horren erakusgarri dira artikulu mordoskada bat eta zenbait liburu, adibidez, *Flor de baladas vascas* eta *El linaje de Aitor*. Bera izan zen Gasteizko «Maria Goyri» Mintegiaren arduradunetarikoa Antonio Cid-ekin batera. Mintegi horren emaitza izan zen *Euskal*



6

*Antonio Zavala Derioko Udako Ikastaroak egindako omenaldian. Ezkerretik hasita: Jaber Kalzakorta, Jesus Antonio Cid, Antonio Zavala, Bernardo Atxaga, Ander Manterola, Jesus Eguskiza EGUZKI. Derio, 1997-07-11.*

*Baladak* obra (I eta II), euskal baladen azterketan lehen mugarria.

80ko hamarkadan sortu zen Labayru Ikastegiaren babespean «Mikel Zarate» Iker Mintegia ere. Inkesta bidez hainbat biltze-lan egin ziren aldi horretan batez ere Bizkaiko herri euskaldunetan: herri-ipuina, baladak, herri-kantak, eske-koplak, bertsoak, errefrauak eta osterantzeko gaiak biltzen zirela. Horietariko batzuk *Idatz & Mintz* aldizkariaren orrietan argitaratu dira «Ahorik aho» sailean. Mintegi horren emaitza dira *Mendebaldeko Euskal Baladak bilduma* (1995), *Lamia, Sorgin eta Tartaroen erresuma ezkutua* (1997) ipuin-bilduma eta *Dantza-kopla zaharrak* (2007) kopla-errepertorio ugaria ere, besteak beste. Labayru Ikastegiaren biltze-ahaleginaren ondorio dira, besteak beste, Oskorri taldearen *Katuen testamentua*, Hiru truku taldearen *Baladak* eta beste kantu bilduma batzuk. Ikastegi honek, bildua duen eta biltzen diharduen herri-literatura ondare guztia katalogatze eta ustiatze bidean du.

Bestalde, herri-literaturari dagokion material asko aldizkako agerkari eta egunkarietan sakabanaturik dugu, batez ere aspaldixokoetan. Batzuk aipatzeko: *Gure Herria*, *Eusko Folklore*, *Euskalerrriaren alde*, *Euzkadi*, *Fontes Linguae Vasconum*. Halakoak arakatzen eta bildumak ateratzen ibiliak dira zenbait ikertzaile: Patri Urkizu eta Xabier Amuriza, besteak beste. Halakoak oraindik modu sistematikoz arakatu beharko lirakeke, zeren dagoeneko material asko berreskuratu bada ere, beste asko dago oraindino ateratzeko. Gogora bedi, biltzaile ugari emandako aldaera diferenteek balio handia hartzen dutela denbora garrenera, azterketak egin orduan.

## 4. ERREFRAUAK ETA ESAERAK

Errefrauak esaldi laburrak dira, gehienetan elipsiaz ulertu beharrekoak; batzuetan esaldi izatera ere ez dira heltzen, hitz bi ere nahikoa izaten baitira errefrauak osatzeko. Baina bere laburrean, errefrauak herri jakituria jasotzen du bizitza eta inguruarekin zerikusia duten hainbat gai edo arlotan. Esaldia laburra izateak erraztu egiten du gogoan hartzea, baina gogoratzen laguntzen duten beste baliabide batzuk ere baditu: erritmoa, geldialdi erritmikoak; errima edo soinu-jokoak, antzeko hotsa duten hitzen bitartez eginak; antzeko-kontrako soinu-esanahien arteko jokoak.

Izen diferenteak eman izan zaizkio euskaraz literatura-tipo honi: errefrau, esaera zahar, errefaín, esakune, esaera, erranairu, erran zahar, zuhur-hitz, errapu, atsotitz. Zientzia ikuspegitik bereizi egin ohi dira *errefrau* eta *esaerak*. Lehenengok halako jakituria, irakatsi edo mezuren bat adierazten dute («Goiz gorri, arrats euri» kasurako). *Esaerak* berba-kate finkoak dira, esaldi eginak, eta osotasun horrek hitz bakar baten adiera hartzen du, kontzeptu zehatz bat (kasurako «olgetan-benetan», ‘txantxetan’ adierazteko).

### ERREFRAUAK

- *Ontzari ez begiratu lumara.*
- *Marigorri: bihar eguzki ta etzi euri.*
- *Lagunaren behiak erroa luze.*
- *Aireko txoriarentzat eskukoa ez utz.*
- *Ondo eta asko, usoak hegan.*
- *Ahoa dabilenean, sabela poz.*
- *Bururik nekatzen ez duenak, hankak nekatu behar.*



- *Elur-urte, zitu-urte.*
- *Goiz ortzadar, arrats iturri.*
- *Agindua bat, emona bi; agindua gaz pozik egon hadi.*

Gaur egun ezagutzen den lehenengo errefrau bilduma *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas* izenekoa da (RS laburduraz), 1596an argitaratua. Ezagutzen dugun ale bakarrak –haren kopiak, hobeto esanda– 539 errefrau biltzen ditu, euskaraz eta gaztelaniaz emanda eta zenbakiturik, baina ez da osoa; atzean errefrauak falta ditu. Oihenarten eskuizkribuan jasorik datoz bizkaierazko 48 errefrauko txorta bat, eurotarik 18 RS edizioko berberak eta beste 20, han ageri ez direnak baina bildumaren ale oso batetik jasoak izan behar dutenak. Larramendik ere ezagutzen baitzuen obra hori, badakar hiztegiaren *Suplemento*-an beste bizkaierazko bat, hura ere RS horretatik jaso datekeena. Guztira 560 errefrau ezagun ditu, bada, *Refranes y Sentencias* bilduma zahar horrek. 1894an Willem Van Eys holandar euskaltzaleak Alemaniako Darmstadt hirian aurkitu zuen arte inork ez zeukan haren berririk. Bi urte geroago berak egin zuen edizio faksimil bat, eta ondoren beste edizio asko izan ditu, bai aldizkarietan bai azterketa sakonagoekin. Ez dago jakiterik bilduma nork egin den, baina euskara eredu hegoaldeko bizkaiera da.

Beste errefrau sorta bi ditugu XVI. mende amaierakoak, Esteban de Garibay Zamalloa historialariaren bidez heldu zaizkigunak: 54 eta 64 errefrau dauzkate, hurrenez hurren. Herriko esakuneak dira, jendeak ahozko jardunean darabiltzanak, eta ekialdeko bizkaieraz daude, bizkaiera hitz egiten den Gipuzkoako alderdikoak dira.

XVII. mendeko errefrauak, ezagutzen ditugunak, Euskal Herriaren ekialdekoak dira. 1657an Parisen argitaratu zen *Les Proverbes Basques recueilles par Sr. D'Oihenart, plus les poesies basques du mesme auteur* lana. 537 errefrau ditu guztira, euskaraz emanak eta frantseseko itzulpenarekin.

Bizkaiko *Refranes* eta Ipar ekialdeko *Proverbes* bildumak dira zaharretan baliotsuenak, ez bakarrik errefrau generoaren aldetik, baita euskal hizkeraren aldetik ere, batez ere gure hizkuntzaren historia argitzeko.



*Errefrau, esaera, atsotitzak berenberigi zein beste lan batzuen gehigarri moduan argitaratu izan dira.*

Oihenarten aurretik baziren beste bilduma batzuk Iparraldean; adibidez, Jaques Bela, Bertrand Zalgiz eta Voltoirerenak, baina hari dagokio lanik onenaren itzala.

Esandakoez gainera, errefrau sortatxoak beste era bateko lanetan txertaturik ere ageri dira, gehigarri moduan. XVII. mendekoen artean, Landuchioren hiztegia (1562), Rafael Mikoletaren *Modo breve de aprender la lengua vizcaína* (1653) eta Axularren *Guero* (1643) gogora daitezke, besteak beste.

XVIII. mendetik heldu zaizkigunak beste helburu batekin egindako liburuetan sakabanaturik daude; hala Pierre d'Urte (1715) eta Manuel Larramendiren hiztegieta.

XIX. mendea hastearekin errefrau-bilketan ekimen berriak sortuko dira, erromantikoez genero horretako herri-jalgipenetan ere popularen arimaren ispilua zekusatelako. Ziur asko Humboldt-en aholkuz, eta Oihenarten berri ere haren bidez izan zuelako, Juan Antonio Mogel izango dugu aitzindari mende-hasieran. *Peru Abarka* berba-jardunetan txertatuko du bere sortatxoa, laugarren berba-jardunean hartan ere: 67 errefrau, guztira. Eta euskarazko idatzietan barrena sakabanaturik dituenak gehitu ezker, ia ehunekoak egiten dute. Mogelen ondorik etorriko dira P.A. Añibarro, J.M. Zabala eta J.A. Uriarte Bizkai aldean eta Duvoisin kapitaina Iparraldean. Halakoen emaitzak lehenengoz beste lanen baten zati gisa argitaratu izan arren, gero ikertzaileek soltean atera izan dituzte, balio handia ikusi dietelako.

Azkenik, ikerlan eta bilketarik ugariak eta baliosuenak XX. mendekoak direla esan behar da. Julio Urkixok *RIEV* aldizkarian azterketa konparatibo

interesgarriak egin zituen. R. M<sup>a</sup> Azkue *Euskalerrriaren Yakintza* obran bilduma oparoa eta Damaso Intzak *Nabarroako erran zarrak* izenekoan ekarpen zoragarria egin digute. Eta azken aldion Antonio Zavala eta Gotzon Garate gailendu dira errefrau-batzen; azkenengoak aparteko beharlekua hartu du, euskal errefrauak batzen batetik, eta beste hizkuntzetakoekin parekatzen bestetik.

## 5. IGARKIZUNAK ETA AHO-KORAPILOAK

Herri literaturaren barruan, genero txikiak deitu izan zaie halakoei, corpus aldetik eta mamiaren aldetik besteen aldean xumeagoak direlako. Hala eta guzti ere, kultura eta hizkuntza guztietan daude halakoak, betidanik esan daiteke.

Geurera etorrita, igarkizunei dagokienez, beste izen batzuk ere ematen zaizkie: asmakari, asmaketa, asmakizun, papaita, pipitaki-papataki...

Hauei buruz euskaraz ez daukagu bilduma handirik ez zahar-zaharrik. François Cerquandek «*Legendes et récits populaires du Pays Basque*» argitaratu zituenean, 1874-1882 urteetan, Frantzian Pabeko *Bulletin de la société des sciences, lettres et arts* aldizkarian, tartean sartu zituen 54 igarkizun. Horiek denak, gehi Antonio Machado Alvarezek 1880an erdal corpusaren barruan ateratako beste pilotxo bat, bildu zituen Julien Vinsonek *Le folk-lore du Pays Basque* (1883) lanean, guztira 78 egiten zutela.



XX. mendean badira biltzaile batzuk beren lanean halako batzuk jaso zituztenak, baina, zalantzarik gabe, ekarpenik handiena, berriz ere, Resurrección M<sup>a</sup> Azkuerena da: berak bakarrik dauzka beste guztienak bat eginda baino gehiago.

Asmakizunek osagai bat baino gehiago bateratzen dituzte. Alde batetik, jolasa, jokoa dira, emandako sasi-deskribapen bat, edo soinu-jokoen bitartez adierazita, beste zerbait asmatu behar da. Denbora-pasa gisa balio du, eta baita adimena lantzeko ere.

Igarkizunek, hasiera edo sarbidea emateko edo formulatzeko modu jakin batzuk dituzte. Hara hemen batzuk, Azkueren bildumatik aterata: «*Zer dala eta zer dala*, beti handitzen joan eta halata ere lekutik higitzen ez dana?», «*Pipitaki papataki*, nik baitakit gauza bat, kenduaz hazi eta gehituten dena» (zuloa), «*Ezetz igarri ...*», «*Ez duzula igartzen*, urtearen hasieran gizen-gizen jaio eta guenean argal-argal hiltzen dana» (egutegia), «Puntan punta bi, atzean zulo bi, artaziak dira ta ezetz igarri». «Gelatxu ta gelatxu, gelarik adina damatxu» (lainoa); «Iturriratekoan etxera so eta etxeratekoan iturrira» (ipurdia); «Beti lehorretan eta beti bustirik» (mihia).

Batzuek erantzuna barruan ematen dute, baina beste itxura batekin. Beste batzuek ingurumariak azaltzen dituzte, hortik abiatuta asmatzeko zer den.

Aho-korapiloiei dagokienez, izenak berak adierazten duenez, ahozkatzeko orduan korapilatzen diren esaldia dira. Berbak ondo ahoskatzen ikasteko, mihia bizkortzeko ariketa ederrak dira. Sarritan jokoa egiten da zeinek arinago esan, edo esaldia zortzi, hamar,

hamabi bider nork esango arnasarik hartu gabe. Hona adibide batzuk:

«Akerrak adarrak okerrak ditu. Adarrak okerrak akerrak ditu. Okerrak akerrak adarrak ditu. Baditu, bere, bereak ditu»; «Zorri barri sarri larri eta barregarri»; «Iputz-apezak napar-istupez atorra; napar-apezak iputz-istupez atorra».

Behin bakarrik esateko ez hainbeste, baina bost edo zortzi aldiz arnasa baten esan behar izanez gero hor dator jokoa, baita korapiloa ere.



8

*Herri kantuak iturri aberatsa dira beste musika mota batzuk egin ohi dituzten kantarientzat ere.*



## 6. POESIA LUDIKO-KORALA

Izena Juan Mari Lekuonari zor diogu. Berez, sailkatzeko gaitzak dira era honetako txatalak, baina denetan alderdi jostagarria eta kantua batzen denez, hortik datorkio izena. Dantza, kantu, jolasa dago guztietan, eta baita errepikatzen diren leloak ere. Herri literaturako poesietako ohiko osagaiak dauzkate: dantza, musika eta letra.

Denen artean, Lekuonak honetara banatu eta sailkatzen ditu.

### *POESIA DEKORATIBOA*

Poema laburrak dira, esanahi argirik ez dutenak. Normalean haurrei abesten zaizkie, haiekin jolasteko, horregatik garrantzitsuen eritmoa da.

Testuari dagokionez, ez dute irudi figuratiborik erabiltzen, soinuak du garrantzia, berba ezagunen antzekoak baina berba horiek esan gabe. Batzuetan badira hitz ezagunak ere tarteka, baina hots-hitzak dira nagusi, eritmoarekin batera poemari eduki sentsitiboa ematen diotela.

Honako adibidean, kasurako, soinuk lo eragiteko sentsazioa sortzen dute, 'kutun' eta 'lo' hitzekin batera, horiek bakarrik dira ezagunak eta:

«Tun-kurrun-kuttun-kuttun-ku  
ttun-kurrun-kuttuna!  
Run-kuttun-kuttun-kuttun-ku  
Run-kurrun-kuttuna!

Lo!  
Run-kurrun-kuttun-na».

### *EGITURA PARALELISTIKOAK*

Halako poemetan behin eta berriz errepikatzen dira osagai berdinak, egitura berbera; hitz batzuk aldatzen dira progresioa eraginez, baina beti molde berean.

Adibide ezagunenetariko bat «Oi, Pello Pello» kantua dugu. Hasteko, emazteak galde egiten dio Pello senarrari ea ohera joan daitekeen, logura dela eta. Pello senarrak erantzuten dio esanez, ohera baino lehen zeregin bat duela egiteko. Zeregin hori bete ondoren atzera egiten dio emazteak galdera bera, eta senarrak berriro erantzun, beste zeregin bat ipiniz. Hala kateatzen dira lan edo zereginak, harik eta eguna argitu eta oherako berandu izan arte.

Zeregin-egitekoak kateatze horrek lihoaren penak agerian jarri nahi ditu: langintza horren nekea eta gogorra indartu; geuri sufriarazten digu lanak eragindako sufrimendua, are larriagoa amaiera heltzen denean, ez baitago atsedenerako betarik hurrengo egunera arte.

Giltza ekintzen progresioa da, sentsazioak metatzen direla.

1

Oi, Pello Pello!  
logale nauk eta  
jinen niza ohera?  
–Irun zan eta  
gero, gero, gero...  
Irun zan eta  
gero, gero ba.

2

Oi, Pello Pello!  
Irun diat eta  
jinen niza ohera?  
–Astalka zan eta  
gero, gero, gero...  
Astalka zan eta  
gero, gero ba.

3

Oi, Pello Pello!  
astalkatu diat eta  
jinen niza ohera?  
–Arlka zan eta  
gero, gero, gero...  
Arlka zan eta  
gero, gero ba.

4

Oi, Pello Pello!  
arilkatu diat eta  
jinen niza ohera?  
–Xuri zan eta  
gero, gero, gero...  
Xuri zan eta  
gero, gero ba.



5

Oi, Pello Pello!  
xuritu diat eta  
jinen niza ohera?  
–Izazki zan eta  
gero, gero, gero...  
Izazki zan eta  
gero, gero ba.

6

Oi, Pello Pello!  
izazki diat eta  
jinen niza ohera?  
–Pika zan eta  
gero, gero, gero...  
Pika zan eta  
gero, gero ba.

7

Oi, Pello Pello!  
Pikatu diat eta  
jinen niza ohera?  
– Jos zan eta  
gero, gero, gero...  
Jos zan eta  
gero, gero ba.

8

Oi, Pello Pello!  
Josi diat eta  
jinen niza ohera?  
–Argia dun eta  
gero, gero, gero...  
Argia dun eta  
ez din balio!

## LELOAK

Poema batzuetan leloak leku eta betekizun apartekoa du. Lekuari dagokionez, hasieran eta amaieran egotera, zikloa hasi eta amaitu, biribildu egiten du. Batzuetan lehenengo bertsoa barik, bigarren edo beste bertso bat errepikatzen da azkenean, baina edozein kasutan lehenagoko bat, hura errepikatu eta ideia indartzeko xedeaz. Horri gehitu behar zaio beste baliabide batzuk ere sartzen direla, hala nola interjekzioak edo «Ai ene!» «Ai morena!» erako adierazpideak, ironia, umorea, grazia areagotzen dutenak. Trikiti-kopletan ohikoak ditugu honen ereduak.

«Olgau nai dabenak  
Karmen egunian,  
olgau nai dabenak  
Karmen egunian,  
etorri Markiñara  
illunabarrian  
Ai oi ai illunabarrian  
Olgau nai dabenak  
Karmen egunian».

«Arin-arin eitten dau  
Soloan erbiek:  
utsik egitten deittu  
punturik erdiek,  
Ai, ai, ai!  
punturik erdiek  
ole morena!  
Punturik erdiek  
ole salada!  
Soloan erbiek».

## ENUMERAZIOAK

Kantu mota honetan, kateak lotzen dira, jeneralean zenbakien bidez adierazita, progresioa erakutsiz, gutxitik askora, txikitik handira edo bestelako irizpideren batekin, baina beti logika bati erantzuten diola.

Eredu bi eskainiko ditugu, bata jateari buruzkoa, bestea erlijio arlokoa:

«Irungo Mayo! A zer afaria geniken bart!

Hamar karga sardin berri, Irungo Mayo! A zer afaria geniken bart!

Hamar karga sardin berri; bederatzi basaurde, Irungo Mayo! A zer afaria geniken bart!....

Hamar karga sardin berri; bederatzi basaurde; zortzi idi; zazpi zezen; sei zikiro; bost pirilo; lau antzara; hiru oilo; bi tortoilo; erratiluak eper bat».

«Martintxo, esaik bat.

–Gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez hi.

–Martintxo, esaik bi.

–Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez hi.

–Martintxo, esaik hiru...

–Hamabi apostoluak; hamaika mila aingeruak; hamar mandamentuak; bederatzi ordenamentuak; zortzirak dira zeruak; zazpi sakramentuak; sei argi-egileak; Jesukristoren zauriak bost; lau ebanjelariak lau; hiru Trinitadeak hiru; Erromako altarak bi; Jesukristo bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez hi».

## ELKARRIZKETA ERRIMATUAK

Galdera-erantzunez osatutako elkarrizketaren bidez katea sortzen da, galdera baten erantzuna berriro itaun bihurtuta.

«-Bela bela jauna,  
-Aita non da, jauna?  
-Aita soloetan.  
-Soloetan zer egiten?  
-Artoak ereiten.  
-Artoak zetako?  
-Oiloarentzako.  
-Oiloak zetako?  
-Arrautzea egiteko.  
-Arrautzea zetako?  
-Abadearentzako.  
-Abadea zetako?  
-Mezea esateko.  
-Mezea zetako?  
-Aingerutxu biren erdian zerura joateko».

«-Nire lapikotxua egosi da?  
-Bai katutxuak jan be.  
-Katutxua non da(g)o?  
-Eskileratik gora.  
-Eskilerak non daoz?  
-Suak erre.  
-Sua non dao?  
-Urak amatau.  
-Ura non dao?  
-Kortako idi gorritxuak edan.  
-Kortako idi gorritxua non dao?»

-Diruagaitik saldu.  
-Dirua non dao?  
-Kartatan galdu.  
-Kartak non daoz?  
-Horma zuloan usteldu».

## 7. KOPLA ZAHARRAK

Euskal herri-poesiaren tradizioko altxorrik handien eta baliotsuenetarikoa osatzen dute koplak zaharrek. Koplak dira eta gehienetan sortan, kateatuta kantatzen dira; eta zaharrak dira gure herri-tradizioan zaharrenetarikoak direlako, finenak izateaz gainera. Noizkoak ote? Erdi Aroko garai ilunean jartzen diete jatorria zenbait aztertzailek; hala Juan Carlos Guerrak, Manuel Lekuonak edo Txomin Peillenek kasurako.

XX. mende hasierako euskal literaturaren Pizkunde eta urre garaitzat hartzen den horretan, herri literaturaren ederraz jabetu ziren ikertzaile eta idazle zenbait, eta baita hura goratu ere. Manuel Lekuonak eta Jose Ariztimuño *Aitzol*-ek, kasurako, era honetako koplak egitura berezia ohartu zuten. Izan ere, koplak bakoitzak lau bertso-lerro baditu, sarri-sarri lehenengo biek irudi bat adierazten dute, abstraktua, naturako elementuren baten erreferentzia; eta beste biek, itxuraz aurrekoarekin zerikusirik edo loturarik ez daukan beste zerbaitekin.

Ariztimuñoen hitzetan *irudia* alde batetik eta *oldozkuna* bestetik; Manuel Lekuonaren esanean, elkarren artean lotura logikorik gabe lotuta. Hala ere, herriak hain estimu handiz gorde izan baditu, euren buruan

halako zerikusi ezkuturen bat sentitu dutelako omen da. Hala, lehenengo partean kontzeptu estetiko zehatz bat adieraziz gero, ederra, onena, gorena edo antzeko zerbait, hurrengo zatian horren jarraipena ikusiko du. Dena den, elipsi-jokoa da nagusi: irudiaren bitartez, hitzik esan gabe, adierazten dira kontzeptuak eta sentsazioak.

Hona adibide batzuk:

Itxasoan laino dago  
Baionako barraraino.  
Nik zu zaitut maiteago  
Txoriak bere kumeak baino.

Hona beste adibide bat lo-kanta honetan:

Larrosatuak bost orri daukaz,  
Krabelineak hamabi.  
Gure umea gura dauenak  
Eskatu beio amari.

Edo *Bereterretxeren kantorea* balada ezagunaren hasierako estrofa:

Altzak ez du bihotzik,  
Ez gaztanberak hezurrik.  
Ez nian uste erraiten ziela  
Aitunen semek gezurrik.

Kopla hauen harira jardun izan dute poesiagile edo literatura idazleek ere. Lauaxetak, Lizardik eta Orixek,

esaterako, beren idatzietan tankera horretan ondutako koplak osotu zituzten. Baita herri-koplak bultzatu eta batzeko ahalegina egin ere, Lauaxetaren kasuan *Euzkadi* egunkariaren bitartez. Geroago, Gabriel Arestik eta Bitoriano Gandiagak, adibide agerienetako bi ematearren, molde berriagoetan murgildu arren, iturri horretara jo zuten.

Kopla zaharrok batez ere urteko garai edo jai jakin-zehatzen inguruan kantatzen dira. Bizkai-Gipuzkoetan Santa Ageda bezperakoa zabal-zabal dabil; Gipuzkoako zenbait lekutan Gabon eta Gabonzahar bezperan edo Urteberri egunean ere kantatzen dira; Nafarroako zenbait lekutan «Ur goiena, ur barrena» deritzan koplak Gabon zaharretako gauerdian abesten da, ur berria eskatuaz batera; Zuberoan aldabak kantatzen ziren Ganderailu bezperan; Inauteriak eta San Joan bezpera ere izaten dira kopla-kantuan ekiteko egunak.

Halakoetan, gehienetan, eske-errondak egiten dira, gazteak aldran doazela etxerik etxe, askotan batek lehenengo kantatu eta aldra-lagunek ondoren erantzunez.

Kopla zaharrak ordena jakin batean kantatu ohi dira:

- Lehenengo sarrera bat, urteko garaiaren berri ematen duena. Sarrera horretan sartzen dira Santa Agedaren bizitza edo Jesusen jaiotzaren misterioa, edo kantatzeko baimenaren berri eman ohi da.
- Bigarren zatia da tradizioari lotuena, hau da, etxeoak, etxeo jendea, kantatu, notadu edo koplaztea. Halakoetan ordena jakin bati jarraitzen zaio estu-estu: etxeo jauna, etxeo andrea, zaldun nagusia eta dama nagusia, zaldun gaztea eta dama gaztea. Etxea osatzen duten familiako horien koplek osatzen dute kantuaren

mamia edo muina, baina izaten dira beste batzuk ere, hala nola, gizon edo andre alargunak, etxeko umeak edo herriko abadea, inoiz edo behin etxeko mutilzahar edo etxeko aitona zaharren bat.

– Azkenez eskea egiten da, eta amaitzeko agurra.

Kopla guztiok aurrez finkatuak izaten dira, tradiziozkoak, ez dira bat batean asmatzen. Belaunez belaur ahotik belarrira transmisio zuzenean heldu dira, eta garai zaharretan sortu ziren moduan onartu eta jaso ditu herriko jendeak, gaur egun ere halaxe edo antz-antzean errepikatzen direla.

Oles da oles etxekotxuak  
joten jatzuez atiak,  
bakar-bakarrik itxite nator  
andrea eta umeak.

Atea dago kristalez  
ate-goiena zidarrez,  
uzaba jauna, esan egizu  
kantauko dogun edo ez.

Uzaba jauna ixilik dao ta  
jirau gaitian aurrera,  
bedeinkatua izan dedila  
etxe honetako jentia.  
pobre ta umil dabilzanentzat  
badegu borondatia.

Alkate jaunaz egondu gera  
atzoko arratsaldean,  
libertatea geuregan degu  
ibiliteko bakian.

Sante marteri maitia  
dago errukiz betia,  
berak alkantzau egin daigula  
osasun eta bakia.

Grazia dioskak ipini  
santa doloroseoni,  
kristindade honen izena  
beti santifika bedi.

Gorrotuaren indarra  
jentillen bihotz gogorra,  
lehendabiziko azotadute  
kendu zioten bularra.

Milagru ikaragarria  
santa honen alegria,  
san Pedrok berak kuratu zion  
santa honi gorputz guztia.

Berriz enperadoreak dino  
eramateko hargana,  
dontzella gazte honen bihotza  
lehen bezen frime dauena.

Enperadore kruela  
hau beti bere legera,  
arrastaka ta desonraturik  
atera bedi kalera.

Hilten zegoan orduan  
jaunari geiez egoan,  
agoniako ordu santuan  
ondo ezagutu zuan.

Bizkaiko hainbat herritan, etxerik-etxe abesten da Gabon aurretxoan *Marijesiak* edo *Abendua* deritzen koplak-sorta. Jainkoak gizona sortu zuenetik Jesusen jaiotzara bitarteko historia-zatiak kontatzen dira, koplak gisa, baina koplak zaharren estetikatik aldentuta. Irudirik gabe, kantu narratiboagoak dira, eta estrofatik estrofara leloa errepikatzen da.



*Abendua edo marijesiak etxerik etxe abesten dira Gabonetan Bizkaiko hainbat herritan. Iurretako taldea, 2008-12-23.*

Erromerian fandango soinuan, trikiti-koplak esaten diren ere, koplak zaharren moldean ari gara.

Larrosa zurigorri  
udaberrikoa;  
ederki dantzatzeko da  
gure auzokoa.

Iru ta bi dira bost  
bost eta bi zazpi;  
neskatxak motillakin  
ez zebiltzek gaizki.

Auntzek adarrak aundi,  
belarriak luze;  
ez naiz ni maitegure  
dotearen baize.

Eperrak kantatzen do  
goizean intzetan;  
ezin pia liteke  
motillen itzetan.

Kaleran nago kaleran,  
arri otzaren gañean,  
atea nork irikiko  
etxera natorrenean.

Begira nago begira,  
kamio bide berrira,  
noiz etorriko ote da  
nere maitea errira.

Ataun, Gipuzkoa

Jabier Kalzakorta

*Dantza-kopla zaharrak*, 2007







10

*Erromerietako koplak soinu-tresna tradizionalekin laguntzen dira.*

Halakoak kantatzeko orduan, gehienetan bertsoaren baten errepika egiten da lelo gisa erabiliz, mezua edo indartu nahi den ideia nabarmentzeko.

Lo-kantuetako asko ere genero honetan sartu beharrekoak dira. Batzuetan esanahirik gabeko berba apaingarriekin hornituta egoten dira, loa ekarrazteko.

«Obabaxue lotiritaine,  
ez egin lorik basoan;  
otso gosiek jan ez zagizan  
bildotsa zarielakoan.

Obabaxue ururru,  
gaur zuaz ta bier erdu;  
alboan do(d)an tontoa baño  
maitiago zaitut nik zu.

Obabaxue lologiñe,  
zu zara nire tanboliñe,  
tanboliñe ta gaitie,  
zu zara nire maitie.

Obabaxue lo ta lo,  
zeuk orain eta nik gero;  
lotxu gozuak engañau deuste  
neure umetxu ona gero».

«Gure umetxu(e) doien orduen  
zaldi urdiñen ganien,  
bostehun kaskabel urregorritzko  
zaldiek idunerien;  
beste hainbeste eta mile gehiago  
atzeko petralerien».

## 8. BALADAK ETA KANTU NARRATIBOAK

Baladak kantu narratibo laburrak dira eta estilo-ezaugarri bereziak dituzte, gainerako generoetatik bereizten dituztenak. Euskal literaturaren barruan *erromantze* izena erabili da aspaldixodanik, baina azken mende-laurdenetik hona izen biok bereiztera jotzen da. Europako literaturaren terminologian *balada* erabiltzen da orokorrean. Gaztelar erromantzea, balada orokor horren barruan eredu berezia izango litzateke. Euskal baladen erreperitorioak, oster, Europako baladen corpusarekin zerikusi argi goa daukala esan daiteke, erdal *romancero* delakoarekin baino, bai gaietan, bai

irudietan, bai literatur baliabideetan; are gehiago,  
Iparraldeko balada multzo ugariak.



### NESKA ONTZIRATUA

Brodatzen ari nintzen  
ene salan jarririk  
aire bat entzun nuen  
itsasoko aldetik  
itsasoko aldetik  
untzian kantaturik.

Brodatzea utzirik  
gan nintzen amagana  
hean jaliko nintzen  
gibelego leihora  
gibelego leihora  
itsasoko aldera.

Bai habil, haurra, habil  
Erron kapitainari  
Jin dadin afaitera  
Hemen deskantsatzera  
Hemen deskantsatzera  
Salaren ikustera.

Jaun kapitaina, amak  
igortzen nau zugana  
Jin zaiten afaitera  
hantxet deskantsatzera  
hantxet deskantsatzera  
salaren ikustera.

### NESKA ONTZIRATUA

1

—Isabelatxu, Isabelatxu,  
arren esan bat eidazu.  
atean dagoan kantore horri  
etor dadila esaiozu.

2

—Egun on asko euki deizula  
ontziko maisu gaztea.  
—Halango asko ekar deizula  
linda damatxu gaztea.

3

—Aitak eta amak bialtzen nabe hau  
kantatxuau ikasten.  
—Hau kantatxuau ikasi nahi badozu  
erdu neurekin bordera.

4

—Eskerrik asko mila biderrez  
ez dot holango usterik,  
aitak eta amak etxean naukie  
neu ondo estimadarik.

Jaun kapitaina, amak  
igortzen nau zugana  
jin zaiten afaitera  
hantxet deskantsatzera  
hantxet deskantsatzera  
salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta  
hoi ezin ditekena  
iphar haizea digu  
gan behar dut aintzina  
ezin ilkia baitut  
hauxe da ene pena.

Andre gazte xarmanta  
zu sar zaite untzira  
gurekin afaitera  
eta deskantsatzera  
hortxet deskantsatzera  
salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta  
Igaiten da untzira  
Han emaiten diote  
Lo belharra papora  
Eta untzi handian  
Lo dago gaixo haurra.

Jaun kapitaina, nora  
deramazu zuk haurra?  
Zaluxko itzulazu  
hartu duzun lekura  
hartu duzun lekura  
aita amen gortera.

5

Berbau ahotik esan bazuan ze  
sartu zuten kapapean,  
sartu zuten kapapean ta  
eroan zuten bordera.

6

Lobedartxu bat ipini neutsen  
bular bien erdian  
linda damea loak daroa  
bosteun legoa bidean.

7

Halan ta bere subertia zan  
untziek alkar jotea,  
ordu hatantxe itxartu zala  
linda damatxu gaztea.

8

—Eroan naizue, eroan naizue  
aitaren eta amaren herrira.  
—Aitaren eta amaren herrira joateko  
bosteun legoak behar dira,  
bostehun legoak holan egiteko  
horren errezak ez dira.

9

—Untziko maisu gaztea  
badezu kainabetea?  
—Ez daukat kainabetarik baina  
emongo deusut saflea.

Nere mariñel ona  
heda zak heda bela  
bethi nahi nuena  
jina zaitak aldera  
ez duk hain usu jiten  
zoriona eskura.

Jaun kapitaina, nora  
ekarri nauzu huna?  
Zalu itzul nezazu  
hartu nauzun lekura  
hartu nauzun lekura  
aita amen gortera.

Andre gazte xarmanta  
hori ezin egina  
hiru ehun lekhutan  
juanak gira aintzina  
ene meneko zira  
orai uduz orena.

Andre gazte xarmantak  
hor hartzen du ezpata  
bihotzetik sartzen ta  
hila doa lurrera  
aldiz haren arima  
hegaldaka zerura.

Nere kapitain jauna  
haxe duzu malurra.  
Nere mariñel ona  
norat aurthiki haurra?  
Norat aurthiki haurra?  
hortxet itsas zolara.

10

Emon zioten saflea eta  
sartu eban bihotzean  
ordu hatantxe hilotzitu zen  
linda damatxu gaztea.

11

—Ene mutilak, lagunak onak,  
zer egingo deutsalagu honeri?  
—Intzentoagaz intzentsatu ta  
erainotzagaz lurrundu,  
linda damea zazpi astean  
geurekin erabili daigun.

12

—Ene mutilak, lagunak onak  
zer egingo deutsalagu honeri?  
—Emon deiogun zazpina mosu  
ta bota deiogun ureri.  
Emon zioten zazpina mosu  
eta bota zioten ureri.

Derio, Bizkaia

*Mendebaldeko euskal baladak, 1995*



Hiru ehun lekhotan  
dago itsas leihorra.  
Oi Ama andrea  
so egizu leihora  
zur'alaba gaixoa  
uhinak derabila.

Ipparraldea

*Kantu, kanta, khantore*, 1967

Baladaren estilo berezia Erdi Aroan finkatu zen European orokorrean, eta gaur arte iraun du, beti ere gehiago ahozko kulturak bizirik dirauen lekuetan, gaur egungo literatura idatziak, komunikabideek eta hiri-bizimoduak asko murriztu baitute ahozko transmisioaren katea. Frantzia, Danimarka, Alemania, Errusia, Grezia eta Espainian balada-sorta handiak ezagutzen dira, eta honezkero baturik daude. Herri bakoitzean baladak forma berezia hartzen du, guztietan du ukitu berezia eta ezberdina, forman (estrofatan banatuta edo ez, errimatuak edo ez) dela, irudiak egiteko errekursoetan dela, edo bertako epikan oinarritzen delako dela. Edozein modutan ere, azpiko oinarria berdintsua dute guztiek, eta elkarrekin parekatu eta konparazioak egin daitezke.

Baladak, normalean, istorio labur baten berri ematen du, hasi eta amaitu, eta, gehienetan, hasieratik bertatik gertaera erabaki-unean aurkezten zaigu, edo argitu edo azken txarrari hasiera emateko unean. Gertaerak ere bortitzak eta gogorak izaten dira gehienetan: ezinezko maitasun-istorioak, indarkeriazko heriotzak, hilketak, borrokak eta antzekoak.

Pertsonaiak nolakoak diren ez zaigu ia ezer esaten; euren hitzez edo ekintzen bidez erakusten dute zelakoak

diren. Ia inoiz ez dago pertsonaien jokabideaz iritzi moralik ez zertzelada berezirik. Baladetan agertzen diren deskripzioak azaleko eta gain-gainekoak izaten dira; berri zehatzik apenas ematen da, ez leku, ez denbora, ez pertsonaia, ez ekintzen inguruan. Eszenak aldatzen direnean, inon ez dago horren berri agerikorik; bat-batekoak dira, eta eszena batetik besterako denbora bitartea gain-gainetik baino ez da azaltzen. Gertaera eta tentsio-une nagusiak elkarrizketa bizi, zuzen, sarkorren bitartez adierazten dira. Baladaren narrazio-modua efektu bortitz, dramatiko, indartsua lortzera bideratua dago, eta horretarako esaldi mamitsu bat-batekoak erabiltzen dira. Baina labur-behar edo ekonomia murrizt honen kontra erretorika-errekurtsoak azken barik erabiltzen dira istorioan karga berezia daukaten unek luzatzeko, eta horrela emozio giroa biziagotzeko.

Baladak herriko jende gutxi ikasiaren artean zabaltzen dira batez ere, eta kantaldi bakoitzean berriren berriz sortzen dira. Horrela jokatu izanaren ondorioz, berezko ezaugarria dute etengabe aldatzen egotea, bai testuan bai doinuetan nabari diren aldaketak eraginez. Ahozko tradizioak indartsu dirauen lekuetan eta literatura idatziak edo bestelako kulturak eragin modurik eduki ez duenean, aldaketa horiek balada bizirik gorde dute, apurka-apurka herriko entzuleen bizimodu, pentsaera, sinesmen eta sentimendu beharretara egokiturik.

Ahozko herri-arte mota guztiak bezala, baladetan ere lehenari eusteko joera handia dago. Horregatik gorde dira kantariaren garairako guztiz galduta dauden ohitura edo gertaerak, eta berba edo esaldi ilunak. Sarritan kantariak soinu batzuk errepikatzen ditu, nahiz argi egon berba edo esaldion esanahia ez duela ulertzen

esatari horrek. Hala ere, soinuari eusten dio, berak kantatzen duen bertsoian tradizioetik datorren berba edo esaera horri lekua utzi nahirik edo. Baladen aldaera berriak, aldaketa askoren ostean sortuak izan arren, ez dira euren aurrekoak baino balio gutxiagokoak. Izan ere, kantu bat argitaratzen denean edo disko batean kaleratzean bakarrik finkatzen da, baina orduan ere, bere historiaren leku, une eta tradizio-bide baten lekuko baino ez da, eta horrek ez du esan nahi gero beste aldaketa batzuk izango ez dituenik.

Baladen sorrera dela-eta teoria nagusi bi daude; «komunalistak» eta «indibidualistak» alde banatatik dabilta, bakoitzak halako edo holako sorrera edo jatorria defendatuz. Eskola komunalistakoek, F.B. Gummere eta G.L. Kittredge buru direla, esaten zuten baladak taldean sortuak direla, dantza eta kantu jaietako berotasunean. Teoria honek izan zituen kritiken ostean atzera egin zuten esanez, baladak eurak ez zirela horrela sortu, baina bai balada prototipikoak, baladen estiloa finkatu dutenak.

Kontrako teoria indibidualistena da, eta euren artean W.J. Coruthope eta Andrew Lang ingelesak eta Louise Pound amerikarra aipatu behar dira. Teoria honen arabera balada bakoitza egile bakar baten lana zen, eta ez zuen derrigorrez folklore kantaria zertan izan. Tradizioa bitarteko hutsa litzateke sortutako kantua ahoz gera zedin.

Gaur egun onartutzat dago kantaldi bakoitzean kantariak birsortu egiten duela kantua; hori dela eta jatorrian lan indibiduala zela onar daiteke. Baina horrek ez du berez garrantzi edo balio handirik, azken finean kantaria ez delako bere burua bakarrik erakusten ari, herri edo komunitate osoarena baino. Kantaria herri edo



11

*Baladak genero berezia dira herri literaturaren barruan, eta kantagai eta aztergai hartu dituzte hainbat adituk.*

talde horren ordezkaria da, eta gainera, balada bat ez da balada bihurtzen, harik eta taldeak onartu eta talde-kantu bihurtu arte, tradizioak ezinbestean eragindako aldaketek moldatuta.

Musika dela eta, balada bat ez da balada kantatzen ez bada. Testua eta doinua elkarren menpe daude, eta ez da normala balada baten bertso bera erritmo eta neurri ezberdineko doinu ezberdinetan aurkitzea, ezta doinu bera balada ezberdin askotarako erabilia ere. Dena dela, doinu bariatatea testu-aldaerak baino hainbat txikiagoa da normalean.

Baladen formari dagokionez, bertsoz ematen dira. Bertso-kate luzeak dira, bertso pareetan errima gordetzen dutela. Euskal balada gehienak estrofatan banatzen ditugu, eta estrofak lau bertso-lerrotan. Lau bertso-lerro izan ezkerre bigarren eta laugarrenak errimatzen dute. Bitan eman ezkerre, bakoitzak beste hemistikio bi ditu, eta bertso biek errima dute amaieran.

Errima diogunean, baladetan hoskidetasuna betetzen da, hau da, amaierako soinuaren arteko antzekotasuna, beti ere entzulearentzako atsegina nagusi dela, aparteko helburu literariorik bilatu barik.

Batzuetan estrofa artean lelo moduko bat tartekatzen da:

«Oi, ai, egia! daigun jira bi Maria!»

Halakoak errepikapen mota bat baino ez dira. Adibide honetakoaren modukoek efektu lirikoa dute gehienetan, eta kantatzean magia-kutsu bat lortzen dute, esaten ez den beste zerbait aditzera emango balute legez.

Izan ere, errepikapena da baladetan errekurtsorik erabiliena. Errepikapen hauek memoriarako lagungarri dira alde batetik, baina aldi berean dramatikotasuna ere indartzen dute. Gure errepertorioan era askotako errepikapenak aurki ditzakegu:

—Bertso beraren barruan:

«Arek igarri, arek igarri»

«Isabelatxu, Isabelatxu»

«Eguna zala, eguna zala»

«Jaun Zuriano, Jaun Zuriano»

—Bertso batetik bestera egiten direnak:

«Izar ederrak argi egiten dau / zeru altuan *bakarrik*

ez da *bakarrik* lagunak ditu...»

«Aitek eta amak bialtzen neude / *au kantatxuau ikasten.*

*Au kantatxuau ikis* nai bozu / erdu neurekin bordera».

«Nor da ori Manbruori / *Manbru erriko trukuori*

*Manbru erriko trukuori* / trukukumian semiori?

—«X / X eta Y» egiturakoak:

«Borbau aotik esan bazuan ze / *sartu zioen kapapean,*

*sartu zioen kapapean ta* / eroen zuen bordera».

«Ainbat arinen sartu gaitazan / *Mutriku erri onian*

*Mutriku erri onian eta* / Ana Juanixen etxian».

«Orrez gainera dekot / *urre-kalizia*

*urre-kalizia ta* / sobrepelizia».

—Estrofa guztiek amaiera bera izatea:

«gu emen dantza gaitezen»

«andratxu gaztia

aita frailea».

—Estrofa osoa errepikatu:

«6

—Oles oles Dios te salve / gaur ostatua gura neuke.

—Emen eztago gaur ostaturik / Jauna lagun bekizu zeuri.

7

—Oles oles Dios te salve / gaur ostatua gura neuke

—Emen eztago gaur ostaturik / Jauna lagun bekizu zeuri».

Errepikapenek besteko garrantzia daukate paralelismoek. Hauetan ere barietate handia egon daiteke, baina beti antzeko egitura erabiliz elementuren bat gehitu edo zehaztu egingo da.

«—Neure anaia, ze barri diraz / Motriku erri onian?  
—Barriak onak diradez baina, / jazo da kalte sobria.  
—O, neure anaia, ez edo-da il / bioren aita maitia?  
—Bioren aita ez da il baina, / jazo da kalte sobria.  
—O traidoria, ez edo-da il / bioren ama maitia?  
—Bioren ama ez da il baina, / jazo da kalte sobria.»

«Ana Juanixe ezkontzen zala / inñuen atzo kalia  
Ana Juanixe ezkontzen zala / aita ta amaren lotsian...»

«—Ene mutilak, lagunak onak, / zer ingo'tsegu oneri?  
—Intzentzoagaz intzentzatu te / erainotzagaz lurrundu,  
linde damia zazpi astian / geurekin erabil daigun.

—Ene mutilak, lagunak onak / zer ingo'tsegu oneri?  
—Emon deiogun zazpine mosu / ta bota deiogun ureri.  
Emon zioten zazpine mosu / eta bota zioten ureri.»

Kontrasteak ere balio estilistikoa dauka:

«Gaztiak kantuan ta / zarrak eragusian»  
«batetik lau balazo / bestetik enfermo»

Progresio konparatiboaren bitartez informazio gero eta zehatzagoa eman daiteke:

«Zuk ezpozu posible, / artu anajia,  
anaje gaztea ta / estudiantia».  
«Abadea urrin dago / eleizea urrinago»  
«ez dot gura frantzesik / ain gutxi errenik»  
«ni neu ez naz Manbrukua, / da gitxiago trukukua»  
«antxe nebazan ogetabat lengusu ta nebea,  
arek baino bearragoa aita neurea,  
arek guztiak baino azkarriago jaubea.»

Baladetako iruditeria nahiko ohikoa da, eta ez da asko aldatzen, forma aldetik itxura ezberdina har badezake ere. Zalduna hitzekoa eta ederra da, andrazkoa ederra eta gaztea, aita ez da ia inoiz ageri, ama etxeoandrea da, etxean ez da ezer txarrik gertatzen, etxetik kanpora, ostera, arrisku guztiak txarrak eta kaltegarriak dira.

## JAUN ZURIANO

1

—Jaun Zuriano, Jaun Zuriano lotan zagoza? Izartu,  
zeure esposa doña Errosabihar dala esposa barri. (bis)

2

—Nor da hori Manbruori Manbru herriko trukuori  
Manbru herriko trukuori trukukumien semeori? (bis)



3

—Ni neu ez naiz Manbrukua ta gitxiago trukukua, ziertuago izan neinteke aingeru zeruetakoa. (bis)

4

—Hemendik hara eroateagaitik zer emongo daustazu sari?  
—Mila libra argizari neure Ama Birjiñari  
beste horrenbeste edo gehiago San Migel aingeruari (bis)

5

—Gortan daukadaz zazpi zaldi zein onena dan hartu bedi.  
Jaun Zurianok hartu dau eta arin doa herriz herri. (bis)

6

—Oles oles Dios te salve gaur ostatua gura neuke.  
—Hemen ez dago gaur ostaturik Jauna lagun bekizu zeuri.  
(bis)

7

—Oles oles Dios te salve gaur ostatua gura neuke  
—Hemen ez dago gaur ostaturik Jauna lagun bekizu zeuri. (bis)

8

—Jaun Zuriano bizi zanean pobreak hemen eben ostatua  
Jaun Zuriano bizi zanean pobreak eben ostatua. (bis)

9

—Nor da hori pobriori, pobre inkietaduori?  
Jaun Zuriano aitatu dau-ta betor barrura erromesori. (bis)

10

Berton daukat ezpada bat Jaun Zurianok neuri itxia:  
haxe gora altzaten dabena izango da neure gizon geia. (bis)



11

Gortan daukat ezpata bat Jaun Zurianok neuri itxia:  
haxe altzaten dabena izango da gizon-geia. (bis)

Hor da gazte brabu hori, ta hasi da baina ezin  
dau altza ezpatea, ta:

—Ia bigarrenak... eta ezin. Ia horrek pobre  
inkietadu horrek.

Horrek begiz ondo adituten deutso.

—Hasi zaitetz ba pobrea.

Hasten da, eta gora daroa ezpatea.

—Hau da neure Jaun Zuriano.

—Hau izango da neure emaztea.

Elantxobe, Bizkaia

*Mendebaldeko euskal baladak*, 1995

Iparraldean aspaldi-aspalditik balada okzitano eta frantsesek sarrera eta eragin handia eduki dute bertako baladetan, eta horrek ia-ia geure mendera arte iraun du. Ostera, euskal baladak, bai gaietan bai tipologian kataluniar eta frantses baladekin dituen berdintasun edo loturak ikusita, deigarria da euskal baladetako gai bat bera ere ez izatea gaztelar erromanzerotik eratorria. Euskal eta gaztelar gaiak parekoak direnean ere, tipo guztiz ezberdinak dira, eta ezin da sorrerari buruz loturarik egin bata eta bestearen artean. Halakoak dira *Frantziako Anderea* eta *La mala suegra*, *Senarraren itzulera* edo *Leisibatxu* eta *La vuelta del marido*, *Neska soldadua* eta *La doncella guerrera*. Parekoak dira, arazo edo gai bera darabiltelako, baina bataren eta bestearen konposizioak guztiz bana eta bereziak dira.

Gaur egun ere oraindino azaleratzen dira noizbehinka artean argitara gabeko aldaerak, batzuk XIX. mendekoak, norbanakoen edo liburutegietako ondasunen artean gordeak. Gainera, zenbat eta aurkikuntza zaharragoa izan, ageriago ikusten dira Iparraldeko eta Hegoalde bazterreko aldaeren arteko kidesunak, dela elkarriketetan, dela formuletan, dela eszenetan. Badago, azkenik eta buruenik, oraindik zer aztertu euskarazko balada-gaien sorburu eta hedatze-bideez.

## 9. BERTSOLARITZA

Bertsolaritza dugu euskal ahozko literaturan adierazpenik berezkoena. Euskaldunen herri-literatura ezer izan bada, beste guztiei euren balioa kendu gabe, bertsolariek egin izan dituzten eta gaur ere egiten dituzten bertso-saio, bertso-kantaldi eta bertso-lehiak dira. Euskal Herritik kanpora ere euskaldunen aho-literatura bertsolariekin eta bertsozaleekin kidetzen dute.

Bertsolaritza bat-batean kantuan bertsoak sortzea da, gai baten edo batzuen inguruan. Saio tankeraren arabera, batzuetan gai-jartzaile batek eman edo zuzentzen die gaia bertsolariei –hori da gaur egungo joera nagusia, berez modernoa, gudu ostetik honakoa batez ere– edo bertsolariek eurek eurretara jarduten dute, gehienetan bik, elkarren artean dialektika modukoa sortuz, elkarri bertso bidez ziria edo kontrako iritzia erakusten dutela ia beti.



*Xalbador eta Mattin bertsolariek sarritan ibiltzen ziren elkarrekin plazarik plaza.*

13

Bertso sortak modu diferentean osotzen dira: gai bat emanda bertsolari bi txandaka bertsotan, bi-hiruna bertso bakoitzak gai baten inguruan, puntua emanda bertsoa osotzen, bertsolari bakarra gai bat emanda bi-hiru bertso botatzen, eta aspaldiko urteotan beste era berriagoetan ere bai, batzuetan ia eszena-antzerki

bihurtzeraino, bertsolari bakoitzak pertsonaia jakin bat ordezkatzeko duela. Estrofa tipoak ere batzuetan gai-jartzaileak aginduak dira: errimari dagokionez hainbeste puntuko bertsoak, neurrian ere zortziko txikia, nagusia edo beste neurri jakin bat eskatuta izan daiteke.

Bertso-ahapaldia ona izan dadin gauza askori begiratzen zaio: neurria ondo bete, luzatu edo laburtu barik; puntuak edo errimak egokiak izan daitezela, antzeko soinuaz amaitzen direnak, beti ere hitza errepikatu gabe, hau da, poto egin gabe; gaiaren tratamendua eta garapena noraezekoak dira. Argumentua edo mezua, bertsoaren mamia, garanduz garanduz doa, eta amaierarako uzten da ideia nagusia, garrantzitsuen edo eragingarriena, mezuaren muina. Gaiaren arabera, erretorika, ingenioa, umorea... nabarmentzen da, baina edozein kasutan ere entzulearen arreta erakarri behar da.

Hona Xabier Amurizak bertso batean azalduta bertsolaritza zer den:

«Hizketan lerratzen da gizonen bizitza,  
jolas edo jokoan pozago gabiltza.  
Neurriz eta errimaz kantatzea hitza  
horra zer kirol mota den bertsolaritza».

Bertso ekitaldiak, gehienetan, bertsolari bat baino gehiago tartean dela egiten dira. Horregatik elkarren arteko lehia, elkarri gaia ematea eta erantzutea da kantaldiari bizitasuna ematen diona. Bertsolari batzuk, baina, ez dira ondo moldatzen bapateko saioetan, bertsoak sortzeko gaitasun handia eduki arren. Batzuk bertso idatziak edo bertso jarriak ontzen hobeak dira.

Bertsolariak noiztikoak diren jakiten erraz ez badago ere, batzuen ustea da, moduren batean ia euskara bera bezain garai zaharrekoak ez ote diren. Bertsolarien edo bertso-apustuen gaineko berriak, ordea, ez dira nahi genituzkeen bezain zaharrak, ezta ugariak ere.

Bizkaiko Foru Zaharrean hiletetan emakumeek egiten zituzten eresiak aipatzen dira, baita azoka eta auzuneetan koplak jartzen zituzten emakume ezagunak ei zeudela ere. Garibai historialariak ere hil-eresiak abesten zituzten emakumeen berri ematen du, baladen atalean ikusi dugunez. Dena den, emakumea ez da gehiegi lotu, tradizioz behintzat, bertsolaritzarekin, gaur egun genero berdintasuna guztiz normalizat jotzen bada ere.

#### NORTEKO TRENBIDEARI

Naparruatik ardo-karraio  
itzai asko zan ikusi,  
prankok bazauzka iri koskorrak  
beren kollare ta guzi;  
zurezko ardatzak lumerarekin  
al zan maizena iyurtzi;  
denbora artan Pantorrill zuten  
karreteruen nagusi.

Garai artako itzai koskorrak  
ongi zebiltzan lanian,  
Gipuzkuan da Bizkai aldian  
da Euskalerra danian,  
gorputzak bapo gobernatuaz  
eranian da janian;  
akabo oien jornal-biria  
trena etorri zanian.

Aditu zituztenian trenen  
txistua eta marruak,  
geientxuenak saldu zituzten  
iriyak eta karruak,  
esanaz: «Orrek jetxiko dizkik  
goi oitan diran arduak».  
Garai artako aien abarkak  
ziran basurde-larruak.

Mila zortzireun irurogei ta  
zazpigarrengo urtian  
lenengo trena ikusi nuen  
Españiako partian;  
bide pixka bat bistan pasa ta  
iñoiz sartua lurpian,  
perra berriyak erantsi dizte  
andikan orain artian.

Modu orretan jarri zuenak  
Norteko ferrokarrilla  
jakinduriya aundiya zuen  
entendimentu abilla;  
gizonik ezin asi liteke  
zaldi obiaren billa,  
goizian irten Irundik eta  
illuntzerako Madrilla.

Danak alkarri lagun zaiogun  
illundu gabe kopetik,  
indar aundiyan dijuala're  
gelditutzen da kolpetik;  
iñor ezertaz biartzen bada  
Donostiyara Madritik,  
Izugarrizko adelantua  
jarriya dago Nortetik.

Linea orrek badauka zenbait  
tunel, zubi ta erriyo,  
bi biderekin ipiñi dute  
sekulan baiño berriyo,  
elektrikako indarra eta  
orrenbeste guardarrayo;  
gau eta egun gelditu gabe  
beti zerbaiten karrayo.

Trenera lasai baliyuake  
egiñagatik zartzera,  
iyo-bidiak ederrak dauzka,  
kotxian aixa sartze'a;  
amar legua bide pasa ta  
ordu beteko etxera,  
lengo segunda bezin ederra  
dago oraingo terzera.

Eseri-aulki ederrak eta  
beste gauza bat on-ona:  
ezertarako beartzen bada  
kotxe bakoitzak komona;  
lenguan antxen ikusi nuen  
larogei urteko amona,  
frantses-euskaldun buruzuri bat,  
Benta Berriko Moñoña.

Karbonerarik ez dute biar,  
fogonerorik ain gutxi;  
or biar dana: begiyak ernai  
eta llabiari eutsi;  
abiyatzian iriki eta  
allegatutzian itxi,  
gau eta egun gelditu gabe  
dabil txistu ta irrintzi.

Gizon abilla zen eletrika  
sortu zuben maisu ori,  
pixka-pixka bat arrek graduak  
bajatu zizkan subari;  
orain indarra leku askotan  
kendutzen zaio urari,  
garai batian merke zan baño  
gaur baliyo du ugari.

Ola esanaz ur irakiñak  
egiten zuen negarra:  
«Prezisua al da beti kalderan  
kiskaltzen egon bearra?  
Ez daukat beste alimenturik:  
sua, kia ta txingarra,  
ongi miatzen baldin banauzu  
otzian badet indarra».

Berari beira jarri zitzaion  
zabaldurikan besuak,  
arrazoi ori ontzat artu du  
elektrikako maisuak:  
«Badakit zure gau ta egunak  
dirala lastimosuak,  
ori egiya esan badezu  
itzaliko dia suak».

Nere munduko jakinduriya  
izan da oso azala,  
Jaungoikuari eskatzen diyot,  
arren, argitu nazala;  
garai batian ez genekiyen  
elektrikarik bazala,  
orain ur otzak dabilki tren  
len irakiñak bezala.

Txirrita, 1931

Antonio Zavala

*Txirrita, Jose Manuel Lujanbio Retegi*

Tolosa: Auspoa, 1992

Testigantzarik goiztiarrenetariko bat Juan Antonio Zamakola arratiarrak (1759-1819) egiten du 1818an, *Historia de las naciones bascas de una y otra parte del Pirineo Septentrional y costas del mar Cantábrico desde sus primeros pobladores hasta nuestros días, con la descripción, carácter, fueros, usos, costumbres y leyes de cada uno de los estados bascos que hoy existen* liburuan. Liburu horretan gaualdi batean koplari baten saioan suertatu zela dio idazleak, eta koplari horrek hain etorri onekoa izan behar zuen, non koplak entzuten pozez gainezka egon omen ziren inguruko guztiak. Beste pasarte batean dio Bizkaiko herria guztiz poesia zalea dela, beste euskal lurraldeetakoan antzera, eta deigarria dela dio, irakurtzen ez idazten jakin barik ere, kantuak bat-batean sortzeko hango jendeak duen trebetasuna, jakintsuenak ere harritzeko bestean. Elkarren artean nork hobeto eta gehiago kantatuko lehian ibiltzen direla dio.



Jose Ignacio Iztuetak *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia* liburuko «Itz neurtulari edo versolarien jostaqueta» atalean, Villabonako plazan egindako bertso-apustu baten berri ematen du. Beste bertso-apustu baten berri ematen du Gorosabelek *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* lanean, 1801ean jokatutakoa antza. Garai beretsukoa da Juan Antonio Mogeleg *Peru Abarca*-ren lehen dialogoan dakarren testigantza bizia ere, ostatuan ordituta koplakantari hasten den agurearen ahotan, hasiera herri-kopla ezagun baten bidez egiten duela:

Aita-semiak edanda dagoz

Ama-alabak jokuan,

Ostera bere egongo dira

Soñoco zaarrak kakuan.

Baina testigantzak gutxi badira, testuak eta adibideak gutxiago edo ia bat ere ez. Ez dago bertsoen azterrenik ia XVIII. mende amaierara arte. Hala ere, gehienak bat-batekoak barik jarriak dira, XIX. mendeko corpusa, bat-bateko bertsoen corpusa, ez da handia. Behin XX. mende erdialdera ezker, soinua grabatzeko tresnak eta bitartekoak sortu zirenean, ordutik bai gorde izan dira bertso-saioak osorik, gaur egungoetara arte. Antonio Zavalak zuzendutako *Auspoa* bilduma dugu bertsoen corpusik aberatsena, batez ere idatziena. Harrigarria da ahozko bertso askoren transmisioa zelan egin den: kantatu ziren momentuan bertan ikus-entzule egondakoek buruan gorde eta berriz osorik kantatzeko gai izan; entzule bertsozaleen memoria onari esker sartu dira bapateko bertso asko gure aho-tradizioko corpusean.

Beste asko bertso-paperak buruz ikasi izanari esker gorde dira herritarren oroimenean, hala transmisioa bermatuz.

Baina bertsolaritzaren aztarnarik ez egotearen arrazoia ez da bat-bateko bertsoak gordetzeko bitartekorik ez egotea bakarrik. Horrez gainera, bertsolaritza sagardotegietako giroarekin, jan-edanarekin eta bizimodu arlotzarekin lotu izan da, eta ez garai hain zaharretan bakarrik. Badaezpadako ospe hori uxatu eta herri literaturaren adierazle bikainenetakoa dela aitortzea, besteak beste, eta batez ere, Manuel Lekuonari zor zaio. 1935ean argitaratu zuen *Literatura oral euskérica* lan zoragarrian bertsolaritzari literatura maila goratua aitortu zion. Bertsolaritzak dituen meritu eta balioak, liburu hori argitaratuz gero, herriko zein erbesteko adituen artean zabaldu zituen ikertzaile oiartzuarrak.

Bertsolari ona, hiltun ona eta idazle ona ere izan daitekeela ezin da ukatu. Zenbat eta bertsolariago, hainbat eta idazle handiago. Gure artean ditugun prosazko lanik zoragarrienetarikoz batzuk hiltun eder eta bertsolari zoragarri batzuei zor dizkiegu. Uztapideren *Lengo egunak gogoan*, Xalbadarren *Odolaren mintzoa* liburuaren hitzaurrea edo Manuel Lasarteren idatziak, euskaraz hitz-lauz ditugun bikainenetarikozak dira. Eraitza hori bertsolariei euri ez-ezik, bertsolarien akuilari, aholkulari eta zuzentzaile izan den Antonio Zavalari zor diogu hein handian. Berau izan da bertso eta bertso-paper biltzaile nagusia. Hirurehun bat liburu-alek osatzen duten *Auspoa* bildumak Euskal Herriak izan dituen bertsolari handienen bertsoak jaso ditu, ia berrogeita hamar urte horretan jardun izanaren ondorioz. Ale horiek guztiek osatzen dute hemeretzigarren eta hogeigarren mendeko gorabehera historikoen testigantza nagusia. Hemeretzigarren mendekoetan, besteak beste,



14

*Uztapide eta Basarri,  
1963.*

Frantsesteko eta karlistadetako bertsoak eta alde bateko eta bestekoen gerra-ekintzak eta iritziak. Baita ere euskaldunek Euskal Herritik kanpora izandako gertaera latzak ere, hala nola Afrikako edo Kubako gerretakoak.

Ezagutzen dugun bi mendeko bertsolaritzaren historian leku berezia merezi du «bertso-paper» edo «kanta-paper» deitzen agerrerak. Bertso-paperak paper solteak ohi dira, orri bakarrak gehienetan, eta orri bakar horretan gertaera bat osorik kontatzen duen bertso-saila publikatzen zen. *Bertso-berriak* horien egileen artean ezagunenatarikoa Xenpelar izan zen; famatua egin zen Euskal Herrian barrena «Bertso berriak Xenpelarrek jarriak» esaera ezaguna.

Bertso hauetako gaiak askotarikoak ohi ziren; bat edo batzuk esatekotan, erlijiozkoak, neska-mutilen haserre eta ezkontza-galtzeak, estropada, aizkora-apustu edo osterantzeko herri kiroletakoak, umorezko gertaerak aipa daitezke. Gerra garaietan, Karlistadetako gerrateetan batez ere, alde batekoek zein bestekoek beren propaganda –arrazoi-motiboak, gertaerak eta irainak– bertso-paperen bidez egiten zuten, bai liberalek, bai karlistek. Euskal Herrian izan den bertso jartzailerik famatuenetako bat, Indalecio Bizkarrondo *Vilinch* donostiarrak bere amodio finezko bertsoak bertso-paperen bidez zabaldu zituen.

#### IZAZU NITZAZ KUPIDA

Loriak udan intza bezela  
maite det dama gazte bat,  
ari ainbeste nahi diyotanik  
ez da munduan beste bat;  
iñoiz edo bein pasatzen badet  
ikusi gabe aste bat,  
biyotz guztira banatutzen zait  
alako gauza triste bat.

Neskatxa gazte, paregabia,  
apirileko arrosa,  
izarra bezin dizdizariya,  
txoria bezin airoa;  
oraintxen baino gusto geyago  
nik ezin nezake goza;  
zorionian ikusten zaitut,  
nere biyotzak, au poza!

Ez al dirazu antzik ematen  
nik zaitudala nayago,



# GOLDARAZ'KO ASTOAREN BERSOAK

## GOLDARAZ'KO BERTSOLARIAK JARRIAK

(1—VI—1863—JAYOA)

(6—II—1924—ILLA)



1

Milla zortzireusanda  
larogeita zortzi,  
gure Eliz Ama Santak  
aurten deramazki:  
Jaunari eskatuta  
grazia lenbizi,  
gerta polit polit bat  
nai nuke adirazi.

2

San Anton bezpera zen  
ta zen larunbate,  
askok ere gogoan  
idukiko dute;  
makiña batek parra  
azkar egin dute,  
asto txiki txuri bat  
dela mediyante.

3

Irurzun' en ferie  
zen egun orrekin,  
ara gu joan bai giñen  
ganadurekin;  
utsik baño obe du  
beti zerbaitekin,  
denok suertatzen dira  
nekazariekin.

4

Patrizio ikusi bai num  
kinkillero ori,  
oyuz asi zitzaidan  
joateko berari;  
alkar saldatutzen  
ala giñen ari,  
astoa aldamanean  
zeukan oyulari.

5

Eskuan billetiak  
zeduzkan saltzeko,  
astoa arratsaldean  
irrifatuzkeko;  
erregutu ziraden  
nik ere artzeko,  
asto ori lenbailen  
netzat izateko.



6

Iñaziyo deitu num  
bela neregana,  
artuko ote giñun  
biyok erdi bana;  
etzela, ez, garesti  
biyok sueldo bana,  
biyentzat izan zedin  
batek zeramana.

7

Billetia neremek  
berexiturikan,  
bi sueldo pagatu ta  
sartu num patrikan;  
nongoa ta nor nitzan  
listan arturikan,  
gero izan etzedin  
bai-ez'oterikan.

8

Arratsaldeko iruek  
laurak bitartean,  
jendea batzartu zen  
Estanko'ko atean;  
billetiak sarturik  
eltze motz batean,  
"publiko'z" jokatu da  
guztizon aurrean.

9

Bizente Otamendi  
erriko alkatia,  
orrek tiratu zuen  
astoaan zoria;  
berak ere bai zuen  
jokuban jarria,  
berak lana eginda  
guretzat suertiya.

10

Ogei t'iru numero  
joan ziran airian,  
gurea suertatu zen  
ogei ta laubian;  
egun da ogeitatik  
gu gera sarriyan,  
pastarako aberea  
pez'erdi batiyan.

11

Kinkalleroak lista  
leitu zularikan,  
PRESENTE egin nion  
aldamanetikan;  
billetia bertantxe  
eskuratutikan,  
astoa nuen artu  
erramaletikan.



12

Bi kajoy eta arbalda  
zintxa bai ta mantu,  
ituraz bazedukan  
abere eder planta;  
batzuk zeudeten parrez  
nerau herriz kantau,  
onela sartu giñen  
Bizenteren bentan.

13

Albunikiak eginda  
t'andik ateratu,  
jinetiya're ona  
genduen billatu;  
andre hat astogañen  
nik kopak pagatu,  
Latasara onela  
giñen alderatu.

14

Matsikeneko bentan  
iru bersolari,  
astouri begira  
kantuz giñen ari;  
Astoa sano zegoen  
ez baizegoen erri,  
graziak emateko  
San Antoniori.

15

Trago bana edanda  
t'andik abiatu,  
mutil bat astogañen  
genduan paratu;  
beste lagun iruok  
atzetik kantatu,  
Goldaraza onela  
giñen allegatu.

16

Jendiyak oarturik  
gure kantetara,  
bela ateratu ziren  
ateriyetara;  
Iñorik etzun prisarik  
gu ere betara,  
geren astoarekin  
denok tabernara.



17

Astoak irets zitun  
maize ta belarra,  
gaixoak hazedukan  
zerbaiten bearra;  
gerok ogiarekin  
denok sardin zarra,  
trago bat egiteko  
ez janari txarra.

18

Asto zintzarri-soñun  
gerok herriz kantuz,  
Zapatamian sartu  
gifin alajatzuz;  
kanta bai eta arrautz  
bazen fundamentuz...  
etxeko astoa ere  
zegoau kontentuz.

19

Egun artan berian  
erostuna bazen,  
bereartan saltzeko  
arrazoik etzen.  
Lendabizi trapero  
erdaldun ori zen,  
irrifatu orduko  
galdeskan ari zen.

20

Amar duro eskatu  
lau arek agindu,  
trapero batendako  
naiko egia du;  
diferentzia beitzen  
ez gifin berdindu,  
berak ueste zun baño  
geigo balio du.

21

Baldin traperoakin  
konpandu bagise,  
txarra izan bear zun  
astoreen fide;  
burri ta trapu zarra  
zata ta espartziñe,  
oen truke jaboya  
misto ta sardiñe.

22

Bigarren erostuna  
Itsasokoa zen,  
tabernariya zela  
berak esan zuen;  
feria pasatu ta  
sei egunera zeu,  
ori ere astoreen  
galdeska zetorren.

23

Egitegatikan  
jaun oiei gustua,  
aparejatu genduan  
majorik astua.  
Bost duro zun eskeñi,  
prezio justua;  
alde batera etzen  
eskeñi gaioa.

24

Guliko ostalari  
pelotari ori,  
astoa ekustera  
hera zen etorri.  
Onek ere eskeñi  
egin zuen garbi:  
lendabizi bost duro  
gero bost et'ardi.

25

Langarren erostuna  
gallego Bizente,  
orrekia egin degu  
trabua dextente;  
ikus bai zun astoa  
belarriak tente,  
pozikan eman zigun  
diruba "presente".

26

Pelaje txurie du  
jeniyoz fueriya,  
jau den udaberrian  
langarren urtiya;  
aize ordalduko du  
egin dun kaltiya;  
Aita San Antoniok  
diola suertiya.


27

Orain Bizente dago  
astoreen jabe;  
naiz merkexago saldu  
gu pozikan gaude;  
ez bargaude aberatsak,  
ez et'ere pobre;  
bost duro badauzkigu  
gastutatik libre.

28

Ogei ta zortzi bertso  
ok dira guziyak,  
"aprendiz" batendako  
geiegi luziyak.  
Lagundu didalako,  
Jannari graziyak;  
uts egiñak barkatu,  
leizale guziyak.

Q



Q

Institución Príncipe de Viana

Sección Fomento del Euskera

12

Indaño - Zubirio - Indaño - 1942

ai, marinelak gau illunian  
izarra baiño geyago?  
Nere onduan zauzkatalako  
pozez zoraturik nago;  
zu ikustiak alegratu nau,  
triste neguen lenago.

Nik ainbat iñork nai dizunikan  
arren ez zazula uste,  
nere begiyak beren aurrian  
beti desio zaituzte;  
eguzkirikan ikusi gabe  
txoriya egoten da triste,  
ni ez nau ezerk alegratuzten  
zu ikustiak ainbeste.

Aurpegi fiña, gorputza berriz  
ez dago zer esanikan,  
izketan ere grazi ederra  
ezer ez duzu txarrikan;  
mundu guztiya miratuta're  
zu bezelako damikan,  
agiyan izan liteke baiño  
ez det sinisten denikan.

Nere betiko pentsamentua  
nere konsolagarriya,  
zu gabetanik ezin bizi naiz,  
esaten dizut egiya;  
zu baziñake arbola eta  
ni baldin banitz txoriya,  
nik zu ziñaken arbol artantxe  
egingo nuke kabiya.

Amoriyuak nere biyotza  
zureganuntza darama,

erri guziyan zeren dakazun  
neskatx bikañaren fama;  
beste fortunik mundu onetan  
ez det desiatzen, dama:  
aur batek berak izan gaitzala  
ni aita eta zu ama.

Falta duenak logratuzteko  
itz egitia txit on du,  
eta nik ere saiatu biat  
ote gintezken konpondu;  
gaur nagon bezin atrebitua  
sekulan ez naiz egondu,  
argatik golpez galdetzen dizut  
nerekin naizun ezkondu.

Ezkondutziak izan bear du  
preziso gauza txarren bat!  
ala esaten ari zait beti  
nere konsejatzalle bat;  
alaxen ere aren esanak  
oso utzirik alde bat,  
ongi pozikan artuko nuke  
zu bezelako andre bat.

Zerorrek ere ongi dakizu  
aspaldi ontan nagola  
zuregatikan penak sufritzen,  
bañan ordia au nola!  
alaxen ere nigana ezin  
bigundu zaitut iñola,  
ni zuretzako argizaiya naiz,  
zu neretzako marmola.

Nere biyotza urtzen dijua  
eta ez da misteriyo,

penaren kargak estutu eta  
zumua kendutzen diyo;  
begiyak dauzkat gau eta egun  
egiñikan bi erriyo,  
beti negarra dariyotela  
zu zerarela meriyo.

Zu zeralako meriyo baldin  
juaten banaiz lur azpira,  
gero damua eta malkuak  
alferrik izango dira;  
bein juan ezkeru oyen birtutez  
berriz ez niteke jira,  
ori gertatu baño lenago  
izazu nitzaz kupira!

Bilintx

*Bertso ta lan guziak*

Tolosa: Auspoa, 1962

Bat-bateko bertsolaritzari dagokionez, 1934an Aitzol eta garaiko beste euskaltzale aditu batzuen artean, lehenengo bertso lehiaketa eratu zuten, euskara suspertzeko bitarteko gisa batez ere, euskal kulturaren goraldian. Bertso guztiak kopiatu egin zituzten eta hor sortu zen lehenengo corpus handi samarra.

XX. mendearen hasierako bertsolaritzan Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* (1860-1936) izan zen nagusi. Haren bertsoetako asko herrikoen gogoan gorde izan dira, pasadizoei lotuta, gatz-piper bizia darielako. Batez ere giro informaletan kantatzea zuen gustuko eta argitasun-azkartasuna zituen ezaugarri.

Bizkaian Kepa Enbeita *Urretxindorra* (1878-1942) ageri da gailen. Herri-bertsolari xehe izatetik abertzaletasun-ideien zabaltzaile bihurtu zen, mitin-hitzaldietan bertso-ekinaldien bidez giroa berotzen zuela. Horrela jadetsi zuen bertsolaritzak beste duintasun bat: taberna-zulotik irten eta plaza zabaleko euskal arte herrikoi bihurturik.

## BEHI ZARREN BERTSUAK

Peruk:

–Komedi tokia da  
gure okollua,  
beyak adarrak dantzan  
ta ik akullua;  
bi alditan or abil  
mutill kankallua,  
esnez eziñ beterik  
eure katillua.

Manuk:

–Ni baño geiago dok  
bei zarra au indarrez  
ostikoka eiten yok  
gañera adarrez;  
esnerik ezin kendu  
ta eu ortik parrez...  
pazentzirik artzen gaur  
etzeukoat errez.

P.

–Esnia zelan kendu  
etxeko danontzat  
sukaldian euki dok  
plana bestientzat;

orain nere ustian  
palta dok euretzat,  
tayu ederra daki  
mutill gaztientzat.

M.

–Matusalen baño be  
zarragoko beya,  
trabesipinten yaustak  
gaur neuri begiya;  
azkan jarriagatik  
pentsu-janariya,  
atzeko anka zar au  
jaukok dantzariya.

P.

Bi alditan asi az  
esnia kentzien,  
biyetan katillua  
dok erdi utsien;  
I baño abillaurik  
ez ba'dok eltzien  
dantzan eingo yok orrek  
okullu ertzien.

M.

–Argi-mutill on barik  
postien onduan  
ator ona ikasten  
ze moduz nagan,  
urretaratu ezpa'nitz  
askoz obe nuan,  
ostikoaz jo nayok  
belaunen buruan.

P.

–Esne kentzen asi az  
arro eta mañez  
ĩnori burletakoa  
uste ta alegiñez,  
i az mutill abille  
bakarrik mingañez  
bei zarren ostikuak  
eraiteko iñez.

M.

–Berriketia beintzat  
ik bai-dok naikua,  
euk eratxi nai ba-dok  
emen yauk lekua,  
urreratu ezkeroa  
errora eskua,  
adarrak dantzan dabiz  
zoli ostikua.

P.

–Nun nai erakusten dok  
abillaren antza,  
esnia batzen berriz  
aparteko yaza;  
garbiro eta bizkor  
neurriyak gorantza  
amak bai'yeukak laster  
pitxer aberatza.

M.

–Segurutik jarrita  
gaur edozer diñok  
neuk eratsi yuat  
orraitik eztiñok

zikintzeko bildurrez  
esku guri piñok  
emen lan egiterik  
etxok gura iñok.

P.

–Mutillen pinizie  
orraitik andiyot  
esnez janaritzeko  
etxeko guztiyok  
ganezka jarri ditu...  
dorean ontziyok...  
lar kendu barik mutill  
Piska bat utziyok!

M.

–Gaztiak ezin leike  
ezer zarrarekin,  
ernegau erain deustak  
gaur eure koplakin;  
banayuak katillu  
ta pitxer onekin,  
or daukok ba lekua  
euk nai badok ekin.

Kepa eta Imanol Enbeita  
*Bertsolaria*, 1931

Gerraostean ez zegoen girorik bertsotan ekiteko;  
hala ere, batzuen jarduna ezinbestekoa gertatu zen  
bertsolaritzaren iraupenerako. Ospetsuenak gipuzkoar  
bi izan ziren: Iñaki Eizmendi *Basarri* (1913-1999) eta  
Manuel Olaizola *Uztapide* (1909-1983). Biak bietara  
Euskal Herri osoan barrena ibili ziren, tradizioari eutsi

eta hurrengo belaunaldientzat oinarri segurua finkatzen  
zutela. Iparraldean ere bertsolari taldetxoak sortu zen,  
haien artean ezagun-agerienak Xalbador eta Mattin,  
hainbat urtez Iparraldeko bertsolaritzaren erreferente  
izango zirenak.

Aldi beretsuan, Alfontso Irigoien euskaltzaina aurretik  
zela, eta Euskal Akademiaren itzalpean, 1948 eta  
1949an Bizkaiko bertsolari lehiaketak eratu ziren.  
Artean ezagunak ez ziren bertsolari berriak buru  
agertzen hasi ziren, batzuk helduagoak, beste batzuk  
gazteak. Helduen artean Balendin Enbeita muxikarra  
da ezagunena, “Garriko” bertso-eskola Ariatza auzoan  
ipini eta bertsolari gazteagoei bidea urratu ziela. Basilio  
Pujana, Ormaetxe eta beste batzuk ere bai. Bertsolari-  
lehiaketa haien bidez burua agertu zuten Bizkaiko beste  
bertsolari gazte batzuek ere, gero ezagun egingo zirenak.

Hortik aurrera, hirurogeiko urteetara arte,  
Euskaltzaindiak lan handia egin zuen bertsolariei  
lagundu eta bertsolaritza aurrera ateratzen. Uztapide eta  
Basarri, edo Xalbador eta Mattinen aupadari jarraituz,  
beste batzuk azaldu ziren ondoren: Jose Lizaso, Jose  
Agirre, Mitxelena, Mugartegi, Azpillaga, Lazkao Txiki,  
Lopategi, Manuel Lasarte, Jon Enbeita...

## SORTETXEARI

Oi gure etxe maitea,  
orroitzapenez betea,  
zorianaren atea!  
Zure altzoan iragana dut  
sortzetik orai artea.  
Izanagatik pobrea,  
bertzeak baino hobea  
ni sortu nintzan etxea.



15

*Garriko Bertso Eskolak Aita Santiri eta Alfonso Irigoieni egindako omenaldia. Muxika, 1992-12-27. Ezkerretik hasita: Alfonso Irigoien, aita Santi Onaindia, Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Jon Enbeita.*

Amak, munduratekoan,  
 etxea, zure xokoan  
 hartu ninduen besoan.  
 Geroztik hunat eduki nauzu  
 zure geriza goxoan.  
 Nabilalarik kanpoan  
 ez naiz sosegu osoan,  
 beti etxea gogoan.

Dudalarik zerbait pena  
 zu zaitut lagun lehena,  
 ihes leku hoberena.  
 Zure alderat inguratzen naiz  
 ahalik eta maizena.  
 Munduko leku maitena,  
 zuri zor dautzut naizena:  
 izana eta izena.

Arbason eskutik jina,  
 o egoitza atsegina,  
 ez dakit zure adina.  
 Heiek lurpean estali ziren  
 zutan utzirik arima.  
 Hain amultsuki egina,  
 heientzat zer bihotz mina  
 zutaz gabetzen bagina!

Etxetik hoinbertze gazte,  
 kanporat zorion eske  
 zoraturik bazoazte,  
 bizi-moduak behartuz edo  
 etxea ez aski maite?  
 Gure faltaz balezate  
 arrotzek etxe hau bete,  
 hobendun haundi gintaizke.

Zutaz hainbertze entzuna,  
aunitzentzat ezaguna,  
o bizipide urruna!  
Nik betidanik arbuiatu dut  
Zure aberastasuna.  
Hau da guk deraukaguna,  
zu baitan eskas duzuna:  
etxeke goxotasuna.

Ene haur onak, badakit  
luzaro gabe engoitik  
joanen naizela mundutik.  
Arbason ganik ukan dohaina  
ez utz sekula eskutik,  
aldegitean hemendik  
heier erraitea gatik:  
Etxea han dago xutik !

Pertsu hauk bururatzean,  
azken finez orroitzean,  
emanen naiz otoitzean:  
Etxea, noizbait utziko zaitut  
aunitz pena bihotzean;  
Jaunak, zure babesean,  
nola bainintzan sortzean,  
naukala heriotzean.

Xalbador

*Odolaren mintzoa.* Tolosa: Auspoa

1976

Kontuan hartzen bada orduko giro politikoa eta euskararen eta euskal kulturaren egoera, isilpean eta erdi gordeta, bertsolariok ikusleen ikuskera bera dute, mundua ulertzeko modu eta balore berak dituzte. Ez daukate aparteko sorkuntzarik egin beharrik entzuleak

bereganatzeko, euskaraz jardutea bera nahikoa dute euren artean lotura sendoa sortzeko. Darabiltzaten gaiak ezagunak dira maiz eta, beraz, literatura balio handiegi bakoak batzuetan.

Denen artean bat edo beste nabarmentzekotan: Lazkao Txiki (1926-1993), maitagarria, bizia, ezta, ironia handikoa; Xalbador (1920-1976), ostera, fina, poetikoa.

Diktaduratik demokraziarako igarobidean, gai politikoak, aldarrikapen doinuak zabaldu ziren, entzuleen eskaria ere hura zelako. Jon Lopategi eta Jon Azpillagaren izenak aipagarri dira aldi horretan.

1980ko lehiaketa Xabier Amurizak (1941-) irabazi zuen, eta hor hasita, haren ekarpenak eragin goitik beherakoa izan du harrezkeroko bertsolaritzan. Euskara batuaz kantatzen hasi zen, errima aberastu zuen, artean erabili gabekoak asmatuz, irudi oso poetikoak erabiltzen zituen eta, orohar, komunikaziorako gaitasun handia erakusten zuen, horretarako erretorikaren hainbat baliabide erabilia. Doinuetan ere, sortu berriak sartu zituen, bertso luzeagoetarako joerarekin batera. Ahots ederraren jabe izanik, kantatzeko estilo berezia erakutsi zuen.

## GAI HORREK BADU MAMIA

*Gaia: Gizona ez da ogiz bakarrik bizi.*

Gai horrek badu mamia  
baldin ez banago gor;  
hainbat jende gizaseme  
ikusten ari naiz hor;  
ogiaz gain gizonari  
anitz gauza zaio zor,  
bestela mundu hontara

hobe ez gintezen sor:  
ogiakin justizia  
behar dugu derrigor;  
hau sinisten ez duenik  
ba al da hemen inor?

Nik eztakit ogi-puskak  
indarrrik baduenetz,  
baina beste zerbaitekin  
bart egin nuen amets;  
esperantza zuri daukat  
naiz etorkizuna beltz,  
ogi hutsez bizitzerik  
nik ez nezake sinets,  
gizon batek hortxe ditu  
bihotza ta hainbat saihets,  
zuek ezetz esan arren  
nik esango dut baietz.

Ogia da familian  
gauza maitagarria,  
baina horrek beharra du  
azpian oinarria;  
idi gisa daramagu  
buruan buztarria,  
askatasuna da ogi  
eta gure neurria,  
inoiz garbi irekitzen  
bada horren iturria,  
betiko berdetuko da  
semaforo gorria.

Xabier Amuriza, 1980

*Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia*

Tolosa: Auspoa, 1980

1986ko lehiaketarako, Bertsozaleen Elkarte  
sorturik zegoen, eta haren ardurapean egin zen lehia.  
Sebastian Lizasok (1958-) irabazi zuen, bertsolaritza  
dialektikorako erraztasun handikoa, bertsolarien  
baliabideak erabiltzeko gaitasun apartekoduna.

### ESKALEARENA

Erropa zahar hoiekin  
etsian nengoan,  
beti jantzi ohi naiz  
ahal denik ondoen,  
akaso bota ditut  
behar zen baino lehen,  
baina ondorioa  
horra hor nabarmen,  
triste nago zeren  
aitona zahar horren  
jokoa gaur zer den  
ikusi ondoren  
miseria gehiegi  
daukagu hemen. (bis)

Triste ikusten zaitut  
aitona izanik,  
gaizki hartu zaituzte  
egia esanik  
zer eman nezake nik  
zuretzat nigandik?  
Ez nuen uste kasu  
hori inun zanik,  
hartzazu dohainik,  
ez eman ordainik,  
bihotza jadanik  
lehertua daukat nik,



erropa gehiago ere  
badut oraindik. (bis)

Besteok sarri juergan  
egun eta gaba,  
eta zuretzat berriz  
hainbeste traba.  
Nere etxe ondoan  
jo duzu aldaba,  
hau da nere bihotzak  
dakarren algara,  
ta hori non, hara  
nere abiada,  
justizirik bada,  
zu hola nola laga?  
Nere traje onenez  
jantziko zara. (bis)

Jon Lopategi, 1986

*Bertsolari Txapelketa Nagusia 1986*

Donostia: Elkar, 1987

Laurogeiko urteen amaierarantz, bertsolari labealdi berri eta ugaria sortu zen, urteetan puntan ibili direnak. Bertsolari-eskolak asko ugaritu ziren, eta lehiaketa bidez jadetsi zuen arrakastari esker, laurogeita hamarrekoen hasieran telebistaz bertsolaritzaren gaineko programa egiten hasi zirenean, boom moduko bat gertatu zen. Hor sartzen dira, besteak beste, Sebastian Lizaso bera, Jon Sarasua, Angel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua, Xabier Euzkitze eta Andoni Egaña, azken hau, lau txapelketaren irabazle, denetan nagusi dela.

Bertsolari hauek aurrean daukaten publikoa ez da bat eta bakarra, pentsaera eta sentimendu ezberdin askotakoak daude, eta zuhur ibili behar dute ateraldi egokia asmatzeko, entzuleak zirikatzeaz gainera inor mindu gabe. Gero eta gai berriago eta konplexuagoak jartzen dizkiete, munduko berri jakin behar dute. Bertsolariak ere, goi mailako ikasketadunak dira denak, eta eskura dauzkate hizkuntza lantzeko gero eta bitarteko gehiago. Bertsoa egituratzeko modua teorizatuta dago, teknika landuta: non zer indartu, nolako bertso mota (luzea, laburra, errima askoduna) gai bakoitzerako.

#### ITSUARENA

Nere eskuak luzatu ditut  
maitearen aurpegira:  
hemen ukitu ta han laztandu,  
makina bat tira-bira.  
Zu ikustea beste gauzarik,  
maite, ez nuen desira;  
taktuan bidez sentitzen dakit,  
beraz ez zaitez kupira.  
Esan liteke: «Egina zaude  
nik behar nuen neurrira».  
Zure begiei begira  
bihotza zauka ari da.  
Pentsamentu bat datorkit orain  
bihotzan erdi erdira:  
holako zerbait izango dela  
eguzkiaren dizdira.

Belarritatik eskua pasa  
baneukan borondatea...



16

*Anoetako belodromoan,  
Euskadiko Sei Orduak.  
Maialen Lujanbio  
kantuan eta Sebastian  
Lizaso eta Andoni Egaña  
atzean.*

*Donostia, 2004-01-31.*

Aho gordina, ezpain zabala,  
zorionaren atea;  
okotz ederra, aurpegi horrek,  
behar zun errematea.  
Ez da errex a nere eskua  
dotore eramatea.  
Hortik aurrera ezin ikusi,  
neronentzako kaltea.  
Ezpain hezurra betea,  
denena hola ote'a?  
Ez da errex sentimentuak  
lau hitzetan esatea:  
begiaz ezin ikusi arren,  
ederra zera maitea.

Taktuak hainbat esaten zunik  
ez nuen espero bela:

zure adatsa ez da kaxkarra  
baizik indardun kordela,  
zure kopeta zabala dezu,  
hizketa ez da mottela;  
irriparrea al dezu beti  
dabilkizun erregela?  
Zu ezagutu aurretik nintzen  
gizon itsu ta ergela.  
Poza ematen ditela,  
hau ez da une ustela:  
ene maitea, tratatu nauzu  
gizon oso bat bezela,  
zuri eskerrak sinistu det nik  
gizon osoa naizela.

Andoni Egaña, 1993

Ikusleen aldetik ere, bertsolaritza kultur adierazpen bat da beste batzuen artean, ez da euskara erabiltzeko esparru bakarra. Egañaren ondorengo bertsolariek, ohiko bertso-saioetatik gora, gaikako ekitaldiak egiten dituzte, antzezpenearekin zerikusi gehiago daukatenak.

Gaurko bertsolarien artean erreferente handia dira Igor Elortza (1975) eta Unai Iturriaga (1974). Haien ostean datoz, besteak beste, Bizkaian Xabier eta Fredy Paia, Arkaitz Estiballes, Iratxe Ibarra; Nafarroan Xabier Silbeira eta Estitxu Arozena; Iparraldean Sustrai Kolina eta Amets Arzallus; Gipuzkoan Jesus Mari Irazu, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze.

#### POSTALARENA

*Gaia: Zure lagun min bat hil zen joan den astean Himalaian. Gaur jaso duzu berak handik bidalitako postala.*

«Kaixo Maialen: zer moduz?  
Oroimena daukat zugan,  
presente zauzkadalako  
nere mendi abenturan.  
Zorionean gabilta  
mendiarekin loturan;  
badakizu, beti gisa,  
nahi ta ezinaren mugan.  
Makaluko gailur horrek  
gu jartzen gaitu liluran;  
etzirako egongo gera  
gailurrarekin joskuran.  
Har zazu muxu bero bat,  
jarri konfiantza gugan».  
Zein bero zen muxua ta  
nik zeinen hotz hartu dudan!

Negar egin nahi dut baina  
ez egitea hobe da,  
malkoak jausiko dira  
bestela postal gainera,  
ta korritu ta borratu  
hemengo muxu ta zera...  
Intzirika hasi nahi baina  
nijoa aguantatzera.  
Imajinatu dezaket  
kanpo-base hartan bera...  
Bere ilusio ta amets  
guzia juan da gainbehera,  
ikurrinarekin juan nahi  
zazpi milako batera,  
ta orain Makalun dago  
heriotzaren bandera.

Irratiak eman zuen  
elur-jauzien abisu,  
baina zuk ametsarekin  
horrenbeste konpromisu  
bazendun, ta holakotan  
egoskor bat dirudizu;  
aurrera segiko zendun,  
beti egin dezu berdintsu.  
Bizitzan ilusioa  
herioren paradisu;  
gero arte esaten ere  
ez didazu utzi, aizu;  
ta zuri azken hitz batzuk  
esan nahiean naukazu,  
karta bat egingo dizut,  
akaso jasoko dezu.

Maialen Lujanbio, 2001

*Bertsolari txapelketa nagusia 2001*

Donostia: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, 2002



*Bertso-ekitaldiak asko ugaritu dira, musikariek, dantzariek, kantariek, antzerki antzera... Mungia, 2008-06-29.*

17

Garai honetarako, neskak normaltasunez aritzen dira bertsoan mutilekin batera. Horrez gainera, belaunaldien artean etena egon beharrean, gazteenek zaharragoak miresten dituztela aitortzen dute, eta alderantziz ere, gazteak lotsa handiz ikusten dituzte zaharragoek.

## 10. IPUNAK

Ipuin, esaunda, pasadizo edo istorioak esatea nekazaritza eta baserri giroarekin lotua dago gehien bat, familia beheko su edo mahai inguruan elkartzen zenean, edo etxeoak zein auzokoak lan ekitaldi luzeak egiten zituztenean. Halakoetan, mahaiaren edo sutondoaren inguruan, eta lan saio luzeen ondoren iluntze-gauetako

kantuak kantatu, kontuak esan eta belaunik belaun transmititu den ahozko esataritza garatu da.

Ipuina diogunean, herri ipuina, tradizioko ipuina dugu gogoan. Zer da herri ipuina? Ipuina, asmatutako gertakizunen kontraera da, gizartean belaunik belaun igaro dena, taldearen barruan, egile edo jatorrizko bertsoaren berririk eta zantzurik gabe. Kontatutako gertaerok ordena logiko batean kateatzen dira, prosaz esanda, eta horren emaitza ipuina da.

Tradizioko ipuina bizia da, etengabe aldatzen eta moldatzen doa, esatariaren eta entzulearen arabera. Kontalariak, narratzaileak, ipuina kontatzean baliabide jakin batzuk erabiltzen ditu, jakinaren gainean edo oharkabean. Ipuin mota bat baino gehiago dagoenez gero, mota bakoitzak efektu ezberdina eragiten du, baina hala ere, ahozko narrazioek, herritik datozen eta ahoz

eta memoriaren bitartez hedatzen diren kontakizunek, orokorrean, euren estilo bereizgarria daukate. Hona labur-labur normalean betetzen diren arauetariko batzuk:

- Ipuinak ekintzaren tentsio-gune gorengoan hasi barik, sarrera lasaiagoa izaten dute, eta amaitzeko ere, goi-mailara heldu ostean barealdira heltzen dira.
- Errepikatze asko egiten dira, bai suspensea, intriga areagotzeko, bai ipuinari mamia emateko ere.
- Pertsonaiak estereotipoak dira, eta elkarrekin kontrastean egoten dira, elkarrekiko lehiak ematen die nortasuna: heroia eta apala, ona eta txarra, aberatsa eta pobrea.
- Ezaugarriak, zertzeladarik nekez ematen da; kontakizunerako lagungarri izan daitekeena baino ez. Lekua, denbora, sasoia, pertsonaien izaerak... normalean ez dira zehazten.
- Haria sinplea da, inoiz ez da korapilorik egiten, gertaera kateak ahalik eta errazen, linealen erabiltzen dira.

Herri ipuinen gainean ezagutzen diren ikerketa eta bilketa lanetan, sailkatzeko modu asko aurkituko ditugu, edukia, pertsonak, kontakizunaren luze-laburra edo beste ezein irizpide, zein hartzen den kontuan. Sailkapena egiteko orduan indarririk gehien daukana edo aipatuena Antti Aarne eta Stith Thomson, finlandiar eskolakoena da. Hiru maila edo kategoria bereizten dituzte ipuinen artean:

- a) Ipuinak beste barik: ipuin mireagarriak (izaki edo gertaera sobrenaturalak islatzen dituzte, Kristo aurretik sortuak dira); ipuin errealistak (ez dago izaki edo gertaera sobrenaturalik); ipuin erlijiosoak.
- b) Animalia ipuinak. Piztia eta animalia mota diferenteak dira pertsonaiak.
- c) Ipuin barregarriak: ipuin barre-eragileak dira, batzuetan burla kutsu eta guzti (aberatsei eta handikiei barre egitekoak; ahul, gaixo eta leloei barre egitekoak; eskatologikoak; txisteak...).

#### ARALARGO TXABOLA

Behin bi lagun jua ziran Aralar mendira, arratsalde bat pasatzera. Mendian zebiltzela, txabola bat ikusi zuten, ia dana sasiak hartuta. Lagun haietako batek bazekian haren berri berea zuan da, horregatik, sasiak kendu, ta giltza bat atera poltsikotik, eta zabaldu zuan.

Barruan sartu zanean, giltzea eman zion beste lagunari esanez:

—Orain atea itxi zak, ni barruan utzita. Gero jua hemendik, eta bota zak giltza hori itxasora, ahal dean urrutiena. Ni hemen geldituko nok.

Lagun hura jua zan itxas ertzera, ta besteak esan bezala, han bota zuan giltzea uretara. Gero bere etxera etorri zan, ta gehiago ez zan akordatu giltza hartaz.

Urte batzuen buruan, jua omen zan motil hori Donostira, ta arrandegi batean zegola, giltza bat atera omen zioten arrai bati tripatik. Orduan

akordatu zan motil hura, giltza bat nola bota zuan itxasora, ta bere laguna nola utzi zuan txabola baten barruan, Aralar mendian.

Arrandegiko nagusiari eskatu zion giltza ura, zer gertatu zitzaion esanez. Hurrungo egunean bertan igo zan Aralar mendira, lagun haren arrastorik ote zegon. Kosta zitzaion txabola hura ikusten, dana sasiak estalita omen zegon. Ahal zituan bezela sasiak kendu, ta ateraino iritsi zanean, hots egin omen zion barruan zegonari.

—Bizi al haiz?

—Oraindik bai, —erantzun zion barruan zegonak.

Giltzaz atea zabaldu ta barrura sartu zanean, han ikusi omen zuan bestea, baztar batean eserita.

—Ondo egon al haiz? —esan zion sartu zanak.

Oso ondo egon zala erantzun omen zion besteak, bakar-bakarrak sagu batzuek eman ziotela lan pixka bat. Belarri puntak zerbait moztuta omen zeuzkan, saguak janda.

Txabola ura itxi, ta biak herrira etorri omen ziran, arratsaldeko bueltea egin bazuten bezela.


Arratibel, Jose. *Kontu zaarrak*

Bilbao: Editorial la Gran Enciclopedia Vasca, 1980

Euskal ipuinen corpusa Europako eta Europaz gainerako tradizioetakoekin bat dator neurri handi baten. Ipuinen gaiak, kontalariaren baldintzak eta helburuak herrialde batetik bestera arean aldatzen

badira ere, gizakion eta gizarteen oinarrizko beharrak asetzea dute helburu han eta hemen. Gizakiok dauzkagun mugek eta bizitzan zehar suertatzen zaizkigun egoera oinarrizkoek leku guztietan sorrarazten dituzte antzeko oinarria duten kontakizunak, ezaugarri batzuek leku batetik bestera aparteko berezitasunak hartu arren.

Aipatu ditugun ipuin moten artean, ipuin miresgarrien artean sartzen direnek osatzen dute multzorik interesgarriena. Izenari dagokionez, *cuentos de hadas* gaztelaniaz, *contes de féés*, *contes merveilleux* frantsesez, *fairy tales* ingelesez, *Märchen* alemanez esaten zaie. Euskaraz izen bat baino gehiago eman izan zaie, goian



18

*Su-bazterrean hedatu izan dira ipuin eta kantu asko belaunaldi batetik bestera.*

aipatu ipuin miresgarriez gainera: ipuin harrigarriak, amandre-ipuinak eta ixtorio-mixerio gogoratuko ditugu, zabal ibili diren neurrian.

Estiloa dela eta, esan daiteke arau moduko batzuk badituztela, bai kontalariak bai entzuleek jagoten dituztenak; hala nola, hasiera eta amaierako formulak, errimadun estrofak edo koplak tarteka txertatzea.

Ipuinari hasiera emateko formulei dagokienez, ezagunena edo ohikoena da «Bazan behin», eta horren parekoak, «Behin, beste askotan bezala» esaterako. Euskaraz hala esaten dugun horrek ordezeko finkoak ditu inguruko beste hizkuntzetan ere. Hala, gaztelaniaz *Erase una vez*, ingelesez *Once upon a time*, alemanez *Es war einmal*. Zer dakarkio gogora esaldi horrek entzuleari? Ez dago une edo garai jakin bat, ez dago leku zehatzik, abstrakzio horrek bide ematen du kontatuko diren gertaera miresgarriak gertatzeko. Horretarako giroa sortzeko balio dute.

Beste horrenbeste gertatzen da pertsonaiekin. Normalean izenik ere ez daukate, eta dituztenean ere izen guztiz arruntak dira. Normalean bestelako deiturak erabiltzen dira: familiako senidetasuna (aita, ama, alaba gaztea, seme zaharra...), gizarte maila (morroia, erregea, soldadua...), lanbidea (okina, errementaria, baserritarra...).



## LAUSTANEKO JAUREGIA

Orai duela aspaldi, aspaldi, Laustaneko Jaunak, bere jauregia txarregi kausiturik, jauregi berri bat egin zezoten galdatu omen zioten Laminerari.

Laminek baietz: gogotik eginen zutea, eta gau-erdiz geroztikako lehen oilar-kantua gabe oraino, baldin eta Jaunak bere arima emaiten bazioten saritzat. Eta Laustaneko jaunak baietz hitzeman zioten.

Laminek gau hartan berean hasi zuten beren lana, ea Arradoiko harri eder gorri batzuk pullikixko lanthurik, harri hek batek bertzeari, bixi bixia emaiten zituzten, ahapetik elkarri erranez: «–To, Gillen! –Harzak, Gillen! –Emak, Gillen!» Eta lana bazoan, bazoan karraskan.

Laustaneko Jauna oilategiko zurubi kaskotik Laminerari beha zagon, halako puska ilhun zerbait eskuan.

Hor, Laminek eskuetan hartu zuten azken harria. «–To, Gillen! –Harzak, Gillen!!... Azkena duk, Gillen!...»


Ordu berean, Laustaneko Jaunak ixtupa mustuka bati su emanik, argi handi bat eraiki zen betbetan, oilategiaren aintzinean, eta oilar gazte bat, iziturik, ustez eta iguzkia aintzindu zitzaion egun hartan, kukurukuka eta hegalez zaflaka eman zen.

Azken Laminak, jadanik eskuetan zuen azken harria firrindilaka arthiki zuen ur-handiko osinera, marraka samin batean: «Madarikatu oilarra!» eta, bere lagunekin suntsitu zen bera osinean.



Harri hura nehork egundaino ezin athera du osinetik, han da bethi ur zola zolan, Laminek aztaparrez daukatela, eta Laustaneko jauregiak harri bat eskaz izan du bethiko denboretan.

BARBIER, Jean / GARRO, Bernardo Otxolua  
*Ixtorio-mixerio / Ipuin-mipuinak*  
 Bilbao: Labayru Ikastegia-Bizkaiko  
 Aurrezki Kutxa 1989



*Aldizkarietan herri-jakintzaren  
 adierazpide asko batu eta zabaldu dira.*

Ipuin miresgarriak aztertu dituzten adituen artean, Vladimir Propp errusiarrak laburbildu zituen normalean halako gehienetan betetzen diren funtzio orokorrak. Haren esanetan, egitura edo morfologia nahiko egonkorra daukate ipuinok. Berak *funtzio* deitzen dituen sekuentzien zerrenda osatu zuen. Sekuentzia horiek ordena berean betetzen dira ipuinetan beti, den-denak agertzen ez badira ere. Proppen azalpenari jarraituz, ipuin miresgarrietan heroi bat dago, eta heroi hori etxetik ateratzen da, munduz mundu ibiltzera, zoriaren bila. Ibilbide horretan traba edo arazo batzuk izango ditu, banan-banan gainditu beharrekoak, eta horretarako inguruan izango ditu laguntzaileak eta arerioak.

Heroiaren ausardia frogatzeko eragozpen guztiok gainditutakoan, amaierara helduko gara, eta amaiera ona izango da, hori baita ipuin miresgarrien beste ezaugarri nagusietako bat. Azkena adierazteko ere, hasieran legez formula egin bat erabiltzen da, adibidez, «Ongi bizi izan baziren, ongi hil ziren», «Halan bazan ez bazan, sar dadila kalabazan, eta urten dadila Derioko plazan».

Batzuetan, gertaera miresgarrioi sinesgarritasuna eman nahian, egomorfismora jotzen da, hau da, gauzak benetan gertatu balira legez agertzeko ahalegina egiten da, kontalaria bera tartean sartuta kasurako. Bera lekuko jartzen da amaiera honetan: «Orduan han nintzen» edo «Orduan han nintzen eta orain hemen». Efektu bera eragin nahi da toki-izen ezagunak, ingurukoak, ematen direnean ekintzaren gertalekutzat, benetakotasuna indartu nahi balitz bezala.

Berez, ipuinon miresgarritasunak naturaren legeak urratzea dauka oinarrian. Urratze hori era askotakoa izaten da: animaliek hitz egitea, normalean txikiak



diren animaliak erraldi gisa agertzea, saguen neurriko pertsonak, printzesa edo printzeak paita, uso, pizti edo munstro bihurtzea eta hala. Edozein tradizioan hori da ipuin miresgarrien muina.

Narrazio tradizionalen artean, ipuin miresgarriez gainera, elezahar edo esaundak beste multzo batean sartzen dira. Halakoetan azaldutako kontaerak asmatuak edo fikziozkoak izan barik benetako gertaerekin lotuta egoten dira, hori bai, baliteke jatorriko gertaera horiek itxuraldatuta egotea denboran zehar egindako ibilbidean. Era askotako edukiak izaten dituzte. Batzuk leienda hagiografikoak dira, beste batzuk historikoak, eta iturri, zubi eta antzekoak agertu edo egiteari buruzkoak ere izaten dira. Leku eta denbora jakin batean kokatzen dira normalean, gainera. Gure mitologiako izaki harrigarrien narrazioak esaunden bitartez heldu zaizkigu: lamia, basajaun, prakagorri, jentil, tartaroren kasuak dira.

## 11. HERRI-ANTZERKIA, PASTORALAK

Herri-antzerkiaren barruan, pasterala dugu adierazpen tradizioaletan garrantzitsuena. Pastoralak Zuberoan iraun du artzain giroko gizarteari lotuta.

Pasterala noiz edo nola sortua den argitu gabe dago oraindik, horren gainean teoria bat baino gehiago badago ere. Teoria batzuen arabera, greziar eta erromatarren antzerkiraino jo behar da haren sorreraren aztarnak bilatzeko. Baina itzalik gehien duen teoriaren arabera, Erdi Aroan Elizetan antzezten ziren misterioekin lotzen da. Misteriook, behin elizatik

aterata, hiri girotik baserri edo landa girora aldatuko ziren, egoera edo baldintza berrietara egokituta. Antzeppen mota honek zerikusia izango luke erlijio gaiko testuen zein profanoen antzeppen paraliturgikoekin. Halakoetan, testua bertsoz zein kantuz emango zen, baina testuarekin batera, ikuskizunak ere garrantzia izango zuen, ikusteko efektuen bitartez. Testua ez ezik, antzeppenak ere garrantzi handia dauka ikuskizunean, ikusleak harrapatu eta lanarekin goza dezaten.

Pastoralaren kasuan, gainera, antzeppena bikoiztasunean oinarritzen da, Onaren eta Gaizkiaren arteko lehian, osagai guztiak banaketa horretara egokituta daudela. Bikoiztasun hori gainetu egin zaio antzeppenari, testua ere aitzakia bihurtu da joko bera antzezteko beti, joko gero eta estu eta lotuagoa, gainera, kode zorrotz bati lotua. Osagai batzuk ezinbesteko bihurtu dira, historiaren hariarekin loturarik izan ez arren. Egin dezagun pertsonaia historiko baten biografia kontatzen ari direla, eta harekin zerikusia eduki zein ez, beti sartuko dituzte osagai batzuk: onen eta txarren arteko borroka; animaliak eszenategira ateratzea, ardiak edo zaldiak kasurako; borrokan pertsonailetako bat hiltzea eta gorpua eszenatokian dagoen zulotik ateratzea lurperatzeko. Halako osagaiak ez dira pastoraletan beti egon, baina azken bi mendeetan guztiz finkatu dira, testuak berak besteko garrantzia edo handiagoa hartzeraino.

Zuberoako antzerkiaren oinarria bertsozko testua da, lau bertsozko estrofitan eratuta, pareetan errima eginez. Neurri-erriman gutxi gorabeherakoak dira, ez da erraz zenbat silabako bertsoak diren zehaztea, ahoskera eta ahozko lizentzien bitartez hitzak komeni den neurriira ekartzen baitira. Erriman ere, ahozko literaturako beste

genero batzuetan bezala, bigarren eta laugarren bertsoen amaieran hoskidetasuna sortzen da, baina errimak zehatz betetzera jo barik, sarritan atzizkibideak berak ematen dituen amaierak baliatuta, errazera jota.

Antzezpena, alde batera, apala da. Landa edo zelai zabal batean jartzen da eszenategia, inguruan hiru alderditan ikusleentzako tribuna duela. Taula gainean, hiru ate daude, oihalez itxita. Erdian ate zuri bat dago, pertsonaia erlijiosoak sartu eta irteteko. Halakoek elizarekin eta zeruarekin dute zerikusia, adibidez apaizak, gotzainak, aingeruak, aita santua... Ate horren albo banatan, ezker-eskuinetan, beste bi ate daude, gorria bata, urdina bestea. Bakoitzak bere ikurra dauka, eta pertsonaia talde bati ematen dio sarbidea. Urdinean zehar onak igarotzen dira, eta gorritik txarrak eta deabruak, infernuko ordezkariak. Erdiko ate zuriaren gainean orkestra jartzen da, aktoreei laguntzeko, kanta-dantzetan eta sartu-irtenetan.

Antzezleak herriko jendea dira, ez dago profesionalik, urte osoa ematen dute antzezpena prestatzen, izan ere, urte bakoitzean herri batek dauka prestatzeko ardura. Herrien arteko lehiak egoten dira nor hobeto egin, zotzetan erabakitzen dela hurrengo urtean zeinek egin.

Garai zaharretan antzezle guztiak gizonezkoak ziren; noiz edo noiz egin omen zen emakume hutsez lanen bat ere. Gaur egun, beste arlo batzuetan bezala, normaltasun osoz sartu dira emakumeak antzezle, eta nahastean jarduten dute.

Iraupenean ere aldaketak izan dira. Antzina egun bat edo bi osorik izaten ziren antzezpenerako. Gaur egun, ostera, pastoralak berak hiru ordu inguru irauten du. Hori bai, aktoreak egun osoan dabilta herrian zehar, desfilea eta dantzak egiten, goizetik gabera jaieguna osotuz.



*Eñaut d'Elizagarai  
pastorala antzezten.  
Gamere-Zihiga,  
2007-07-29.*

## PASTORALA

### *Lehen peredikua*

- 1 - Agur, agur, jente honak / xaharrak ala gazteak  
Algarrekila jarriak / Euskaldün ala besteak.
- 2 - Istoria bat entzün arren / segür inganagarria  
Eta geroari bürüz / agian argigarria.
- 3 - Oier hirugerrena zen / Xiberoko azken jauna  
Bizkonte kargüarekin / Mauleko gaztelüzaina.
- 4 - Erauntsi züan tai gabe / Xiberoaren zainkatzen  
Eta bizia higatü / etsaiaren güdükatzen.
- 5 - Bi nabusi beitzütüan / Bordele (e)ta Nafarroa  
Bat aski zela pentsatüz / Iruñean zeion<sup>5</sup> geroa.
- 6 - Akitaniako dükari / oldartürrik hanitxetan  
Zonbait aldiz goitü<sup>6</sup> züan / güdüka galdü bestetan.
- 7 - Ingelesen errege beitzen / Akitaniako dük hori  
Indarraren aitzinean / gure jauna zen erori.

- 8 - Xiberorik ohiltürrik<sup>7</sup> / Nafarroan zen ohatü  
Eta han armaden bürü / erregeak izentatü.
- 9 - Nafarroako jüntetan / kargü handiak beterik  
«Mauleon» izena han ereinik / ondokoetan dü bizirik.
- 10 - Arradako mendi tinian<sup>1</sup> / gora beitü jauregia  
Bardin gora gure beitan / Xiberoaren begia.
- 11 - Oierren arartez egün / Xiberoa dügü aipü  
Besta hau sorleküari / eskentü<sup>2</sup> nahi deiogü.

DAVANT, Jean-Louis  
*Xiberoko jauna*. 2008

Pastoraletan era askotako gaiak erabili izan dira. Iraganean errege, santu, heroi historiko, Bibliako eta historiako pertsonaien gainekoak izaten ziren. XX. mendearen erditik aurrera batez ere euskal gai eta pertsonaiak dira ardatzak.

Pertsonaiei dagokienez, zein aldetan dauden, kristauen alderdian edo turkoen alderdian, beti rol jakin bat jokatzeko dute, antzeztan ari diren historia gorabehera. Orokorrean pertsonaiek ez dute sentimendurik adierazten, ez daukate nortasun argi bat, estereotipo bati erantzuten diote.

Kristauen alderdikoek pastoralaren alde positiboa antzeztan dute, haien artean dago *suje*t deritzana, hau

da, protagonista, biografia kontatzen den pertsonaia nagusia. Hori da lanean zatirik handiena hartzen duena eta parte gehien duena. Haren ondoan gizarte tradizionaleko hiru estamentuen ordezkariak jarriko dira, soldaduak, baserritarrak eta elizgizonak. Pertsonaia horien jokamoldea fina da, beti ordenan mugitzen dira, bertsoak kantatzen dituztenean serio eta ondo ari dira eta mugitzeko era zuzena da.


Turkoek gaizkia, infernua, adierazten dute, inoiz haiekin dabil Satan ere, eta fedegabeak, paganoak ordezkatzeko dituzte. Kristauen kontrako jokamoldea daukate, zarata egiten dute, saltoka dabilta, arinago eta altuago kantatzen dute. Turkoen alderdian dauden satanak barregarriak dira ikusleentzat eta ekintzen arteko tartekak betetzen dituzte elkarren artean borrokak eginez, dantzen bitartez adierazita.

Batzuen eta besteen arteko lehia ez dator pertsonaien ezaugarriengatik edo argumentuak hala eskatzen duelako; bakoitzak bere taldea ordezkatzeko du eta horretarako jokabide jakin bat izan behar du. Izatez, pertsona mota bi erakusten dituzte, onak eta txarrak, baina maila abstraktu batean. Izan ere, Jaungoikoaren jarraitzaileek arrazoia, zentzuaren erakusle badira ere, ezin da esan turkoek ezaugarri horiek ez dauzkatetik. Eta berdín alderantziz ere, turkoak harroak dira, goranahikoak, grinatsuak, baina kristauek ere badituzte halako ezaugarriak.

Pertsonaia erlijiosoak ez daude txertatuta argumentuan, kontakizunaren harian; antzezpeneko zati dira, tradizioetik datorren osagaia. Horrez gainera, erlijiotasun horren adierazpenean zeru-lurretako zantzuak, eguneroko bizimodukoak eta miragarriak, nahasian ageri dira. Eliza, hierarkia moduan, apaiz, gotzain, aita

santu, fraile eta antzekoen bidez ageri da; baina haien ondoan aingeruak ezin dira falta, normalean zuri-zuriz jantzita eta buruan lore-koroa duten umeek antzeztuta. Astiro eta denak elkarrekin mugitzen dira, eta euren kantuek doinu berezia izaten dute. Osagai hori ez da inoiz falta pastoraletan, baina berez, kontakizunari ez dakarkio ezer berririk.

Pastoraletan, historiaren beraren hasiera eta amaiera modura, beti daukate *lehen pheredika* eta *azken*



21

*Pastoraletako testuak liburuxkan argitaratzen dira azken urteotan. San Mixel Garikoitz pastoralak. Arizmendi, Donibane Garazi, 1994.*

*pheredika*. Lehenengoa aurkezpen moduko bat da, ikusleei harrera egin, ikuskizunaren berri eman eta haien arreta bereganatzeko. Azken pheredikan eskerrak ematen dira, txarto eginak barkatzeko esan eta berriro ere mezu morala errepikatu. Bietan kantaria bera da, estrofa guztietan doinu bera erabiltzen du, baina batetik bestera eszenategiaren alde banatara mugitzen da, batean ezkerrean hurrengoan eskumara, orkestraren doinuak lagunduta.

Antzerki mota honen zuzendaria, *errejenta*, taula gainean dago, orkestraren azpian eserita, aurrean mahaitxo bat duela. Nork parte hartu behar duen berak erakusten du ikur urdina edo gorria. Antzina errejentak egokitzen zuen argumentua antzezpenera eta bertsoak sortu pastoralean kantatzeko, zuzendariarena egiteaz gainera. Gaur egun bi zeregin horiek banatu egin dira; alde batetik pastoral-egileak, idazleak sortu dira, errejentaren aginduetara testuak asmatu eta egokitzeko, eta errejentak zuzendari baino ez du egiten.



## BIBLIOGRAFIA

- AREJITA, ADOLFO; ETXEBARRIA, IGONE; IBARRA, JAIONE. *Mendebaldeko euskal baladak*. Bilbo: Labayru Ikastegia-BBK, 1995.
- ARRATIBEL, JOSE. *Kontu zaarrak*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1980.
- AZKUE, RESURRECCIÓN M<sup>a</sup>. *Cancionero Popular Vasco*. Bilbo: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, 1968.
- Euskalerrriaren Yakintza*. Madrid: Espasa Calpe, 1989.
- BARANDIARAN, JOSE MIGUEL. *Obras Completas*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972-1984.
- KALZAKORTA, JABIER. *Dantza-kopla zaharrak*. Bilbo: Labayru Ikastegia-BBK, 2007.
- Kantu, kanta, khantore*. Baiona: Kordelieren irarkolan, 1967.
- LAKARRA, JOSEBA; URGELL, BLANCA; BIGURI, KOLDO. *Euskal Baladak*. Donostia: Hordago, 1983.
- LEKUONA, JUAN MARI. *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein, 1982.
- LEKUONA, MANUEL. *Literatura oral vasca*. 3. arg. Kardaberaz bilduma; 22-B, 1964.
- MARKAIDA, M<sup>a</sup> EUGENIA... [ET AL.]. *Ahozko literatura: genero txikiak*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1991.
- MICHELENA, LUIS. *Historia de la Literatura vasca*. Madrid: Minotauro, 1960.
- MICHELENA, LUIS. *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro, 1964. Berrarg. Anejos ASJU-XI. GFA / DFG & EHU / UPV. Donostia 1990.
- OYHARÇABAL, BERNARD. *La pastorale souletine: édition critique de Charlemagne. Anejos del Anuario del Seminario "Julio de Urquijo"*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1991.
- Refranes y sentencias* (1596). Edizio kritikoa, JOSEBA LAKARRA ANDRINUA. Bilbo: Euskaltzaindia, 1997.
- ZAVALA ANTONIO. *Euskal erromantzeak. Romancero Vasco*. Oiartzun: Sendoa, Auspoa Liburutegia, 1998.

## ILUSTRAZIOEN ITURRIAK

Liburu honetan erreproduzitutako liburu eta aldizkari guztiak LABAYRU IKASTEGIAK Derion daukan Euskal Bibliotekaren ondaretik hartu dira.

2. CHARRITON, P. PIERRE *Broussain sa contribution aux études basques (1895-1920)*. Paris: Editions du Centre National de la Recherche Scientifique, 1985.
3. MANUEL LEKUONA. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1988. *Bidegileak-1*.
6. LABAYRU IKASTEGIAREN argazki-artxiboa.
8. BIZKAIA IRRATIKO FONOTEKA eta GORANE INTXAURRAGA.
9. LABAYRU IKASTEGIAREN argazki-artxiboa.
10. GORANE INTXAURRAGAK utzia.
12. LABAYRU IKASTEGIKO Euskal Biblioteka.
13. *Xalbador*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1995. *Bidegileak-6*.
14. SENDOA.
15. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA.
16. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA.
17. MUNGIAKO BERTSO-ESKOLA.
20. EGILEENA.

